



- **Lehen Mundu Gerra** Interpretazio berriak guda piztearen arrazoiez
- **Antton Luku** «Kulturak beharra galtzen duelarik marfilezko dorre bihurtzen da»
- **Net Hurbil** Ernesto Laclau, Latinoamerikako populismoaren teorikoa zena
- **Garro baserria** Energetikoki burujabe izateko proiektuari legeak egiten dio traba

Josu Juaristi (EH Bildu) eta Izaskun Bilbao (EAJ)

Europako eredu sozialaz, bakeaz,
burujabetzaz, energia trantsizioaz...





Herrien erabaki eskubidea

**Iñaki
Lasagabaster**
Hari juridikoari tiraka

Asier Blas
Sezesio prozesuak:
Eskozia, Katalunia,
Euskal Herria

**datorren
asteen**



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetza: Karlos Olasolo. Idazkaritza tekniko: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: GaztelukoPlaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko maiatzaren 18a, 2.415. zenbakia

ASTEKO GAIA

LEHEN MUNDU GERRA Gerra Handiaren kausa handiak.
NAGORE IRAZUSTABARRENA / 4

PERTSONAIA

ISABEL ITURBE: «Trujilloren garaia beldurgarria izan zen Dominikar Errepublikan». MIEL A. ELUSTONDO / 9

GAIK

ENERGIA AUTOKONTSUMOA Nola bihurtu baserria
energetikoki burujabe... alferrik bada ere. IKER IÑIGO / 14

PREKARIETATEAREN AURPEGIAK Kameraz zelatatzen dute
langileon jarduna. ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 17

KAIRO Niloko Paris omen zen hura. ANE IRAZABAL / 18

IRITZIAREN LEIHOA

**JEAN MCCONVILLE IN MEMORIAM: EGIA, JUSTIZIA ETA
ORDAINA** GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR / 22

PREFETAREN ETXEO LANAK JAKES BORTAIRU / 24

HIPOKRISIA JOXERRA AIZPURUA / 25

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 23

TXANDAN Eibar. AMETS ARZALLUS / 24

BERTSO BERRIAK Gure esku dago. MIREN AMURIZA PLAZA / 25

ERDIKO KAIERA

ANTTON LUKU: «Ene kezka transmisioa da, aktorea sortzaile
bilakatzea». MIKEL ASURMENDI / 26

LEIOAKO UMORE AZOKA 2014 Estreinalditarako gune
aproposa. MYRIAM GARZIA / 30

LITERATURA IGOR ESTANKONA / 32

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

ALEA Hainbesterako eta gehiago. NAGORE IRAZUSTABARRENA / 35

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

EUROPAKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

Begi bat European, bestea Estatuan. URKO APAOLAZA AVILA / 39

HIZKUNTZA KUDEAKETA HEZKUNTZAN Nola bermatu

cleaniztasuna euskara kaltetu gabe. SAIOA ALKAIZA GUALLAR / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Ernesto Laclau, ezkerreko lider populisten
teorikoa. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Gerra Handiaren kausa handiak

Lehen Mundu Gerrak duela 100 urte egin zuen eztanda, Sarajevoko atentatuaren ondorioz. Eta Alemania izan zen errudun nagusia. Edo hori da azken mendean nagusitu den ideia. Baina gatazka konplexu horren atzean arrazoi askoz konplexuagoak daude eta mendeurrenaren aitzakian ugaltzen diren interpretazioak horren lekuko dira.

| NAGORE IRAZUSTABARRENA |

ODOLEZKO ETA ILUNTASUNEZKO TUNEL LUZEA izan zen Lehen Mundu Gerra, André Gide idazle frantziarraren hitzetan. Gerra Handiak lau urte iraun zuen, baina badirudi historialariak oraindik ez direla tuneletik atera gatazka eragin zuten kausak argitzeko garaian. Azken mendean 25.000 lanetik gora argitaratu dira gatazkaren inguruan, eta mendeurrenaren tiraldi komertziala aprobetxatuz, interpretazio berriez –eta ez hain berriez– bete dira liburudendak. Baina egileak ez datoz bat gerra zerk eragin zuen azaltzerakoan.

1914ko ekainaren 28an Gavrilo Princip serbiar nazionalistak Austria-Hungariako

Inperioko koroaren oinordeko Franz Ferdinand eta haren emaztea hil zituen Sarajevon. Vienak aitzakia baliatu zuen Balkanetako auzo deserosoak erasotzeko eta Alemaniako kaiserrak Serbiaren aukako eraso babestu zuen. Tsarrak herrialde eslabo guztien babesletzat zuen bere burua eta Serbia defendatzeko erabakia hartu zuen. Frantziak eta Britainia Handiak Entente Hirukoitza osatzen zuten Errusiarekin. Italiak eta Turkiak, aldiz, Europa erdialdeko inperioekin egin zuten bat. Atentatua burutu eta aste gutxira bandoak garbi finkatuta zeuden eta gerra martxan zen.



Alemaniar oinezko batailoia Mulhouseko guduzelaian (Alsazia), 1914ko abuztuaren 7an. Alemaniarrak izan ziren erasotzen lehenak eta gerraren errudun nagusitzat jo izan dira. Baina badirudi erantzukizuna banatzeko joera gero eta garbiagoa dagoela, baita iritzi publikoan ere. *Muy interesante* aldizkari espainiarra inkesta bat egiten ari da sarean eta une honetan soilik %24k uste dute Alemania izan zela errudun nagusia.

Belle Époquetik gerra itsusira

XIX. MENDEAREN AZKEN HAMARKADATIK, Frantzia eta Prusiaren arteko gerra amaitu zenetik, Europa bakean eta baikortasunean bizi zen. Lehen Mundu Gerraren trauma aurreko garaia *Belle Époque* esaten zaio, paradisu galdua bailitzan. Frantzia, Britainia Handia, Alemania, Errusia, Austria-Hungaria eta Italia, berehala elkarren aurka arituko ziren potentzien artean botere oreka itxuraz egonkorra zegoen. Euro-parrek fede izugarria zuten aurrerapen zientifiko eta teknologikoetan, gizarte mugimenduak ugaltzen ari ziren, bazirudien inperialismoari eta kapitalismoari esker ekonomiak ez ziola sekula hazteari utziko, Afrika tarta bailitzan zatitu eta banatu berria zuten... Zerumugan oparotasuna eta hazkundea besterik ez zegoen, itxuraz.

Giro baikor hartan, bakezaletasunak ere bazuen tokirik. Eta horren adibide garbienetakoa da Norman Angell idazle eta politikari britainiarrak 1909an lehenengoz argitaratutako *The Great Illusion* (Irudipen handia) lanak izan zuen arrakasta eta hedapena. Liburuan Angellek argudiatzen zuen potentzia industrialen arteko gerra zentzugabea zela, konkistak ez zuela handik aurrera etekinik ekarriko. Haren tesiak zioenez, nazioarteko harreman berrien ondorioz, potentzien arteko interdependentzia ekonomikoaren ondorioz, gerra ekonomikoki kaltegarria izango zen parte hartzen

zuten guztientzat, ustezko garaile nahiz galtzaileen-tzat.

Nazioarteko lankidetzan emandako pausoak ez ziren banku jarduerara, garraioetara edo komunikaziora mugatu. Mugimendu olinpikoak eta hark bultzatzen zituen balioek, esaterako, indar handia hartu zuten urte horietan.

Eta ezin ahaztu Hagako Hitzarmenak. 1899ko eta 1907ko bake konferentzia multilateraletan nazioarteko zuzenbideko oinarri sendoak jarri ziren, gerra krimenak arautu, armagabetzeari buruzko legeak onartu... Hagako hirugarren bilera 1914. urterako deitua zuten, baina, ironikoki, gerraren ondorioz atzeratu egin zuten. Gerra laburra izango zelakoan, konferentzia 1915ean burutzea zen asmoa, baina azkenean bertan behera geratu zen.

Historialari batzuentzat bake hura benetakoa zen, baina akats inibidual inozo batzuek, gerraren onuratan sinesten zuten ero boteretsu gutxi batzuek dena pikutara bidali zuten. Beste batzuentzat Alemaniak hautsi zuen beste guztien arteko harmonia zorionsua. Seguruenik azal baketsu hura uste baino meheagoa eta hauskorragoa zen, potentzien arteko oreka adierazten zutena baino ezegonkorragoa, gerra piztu zuten arrazoiak gutxi batzuren burugogorkeria baino konplexuagoa.

Ukaezina da Balkanetako afera labainkorra zela orduan —eta hala izango zela gerora ere—. Baina txinparta hark ez zukeen gerra piztuko berez nahikoa erregairik ez balego. Eta beste txinparta batek, lehenago edo geroago, Balkanetatik hurbilago edo urrunago sutan jarriko zuela Europa.

Mendeurrenaren aitzakian argitaratutako lanik arrakastatsuenetakoa Margaret MacMillanen *The War That Ended Peace* (bakearekin amaitu zuen gerra) da. Bistakoa da Oxfordeko unibertsitateko historialariak txinpartak gustuko dituela. Liburuaren tituluak adierazten duenez, MacMillanen ustez, Europa kontinente baketsua zen 1914an, gerra ez zen inolaz ere saihestezina, askok dioten bezala, baina boterean zeuden norbanako gutxi batzuen erabakiek, xehetasunek eragin zuten gatazka. Adibidez, Austria-Hunga-

riako armadako Estatu Nagusiko buru Franz Conrad von Hötzendorfek ospe militar pertsonala lortu nahi omen zuen aurrez dibortziatuta zegoen Gina von Reininghausekin ezkondu ahal izateko. Edward Grey Kanpo ministro britainiarra txoriei begira zebilen gerra piztu zenean, ornitologiarekiko interes handiagoa baitzuen jarduera diplomatikoare-

kiko baino. Eskola zaharreko historialari izaki, “historia, hein handi batean, gizabanakoen menpean” dagoela uste du. Xehetasun horiek gerraren jatorria laguntzen al dute? Ziurrenik ez, baina liburua entretenigarri egiten dute. Eta aitortu behar zaio ez dela ez lehena ez bakarra Gilen II.a kaiserraren osasun mentala zalantzan jartzen.

Alemania errudun

Mendeurrenako beste best sellerretako bat Max Hastingsen *Catas-*

LE PETIT JOURNAL



1914ko ekainaren 28ko Sarajevoko atentatua gerra abiarazteko aitzakia hutsa izan zen, metxa piztu zuen txinparta.

LEHEN MUNDU GERRA

trophe 1914 da. Txinpartak baino, erregaia du aztergai egileak eta erregai guztia Alemaniaren esku zegoela dio. Bigarren Mundu Gerran aditua da Hastings, eta bi gatazkak alde-ratzeko joera du. Bi mundu gerrak “moralki” berdinak direla dio; bietan errudun nagusia Alemania dela, alegia. Haren-tzat gerra saihestea ez zen erraza, eta gainera, gerrara joatea “beharrezkoa” izan zen nola-bait, Alemaniari aurre ez egiteak, nahi zuena egiten uzteak, ondorio are kaltegarriagoak izango baitzituen.

Egia da 1871ko batasunetik Alemaniaren aferak protagonismo handia izan duela Europan eta munduan. Baina gerra saihestu izan balitz, edo Alemaniak galdu izan ez balu, ondorioak oso bestelakoak izango al ziren, Hastingsek dioen moduan? Gerra Handia piztu aurretik, Hugo Stinnes izeneko industriagizon alemaniarra kexu zen, haren inguruan militarrek etengabe Europa menderatzeaz ari zirelako. “Zain egonez gero, kontinentea berdin-berdin hartuko dugu mendea” zioen. Eta hori gertatu da, bi mundu gerren itzul-ingurua tarteko.

Alemaniaren aurkako obsesioa alde batera utzita, Hastingsen liburua gerraren lehen bost hilabetetako kontakizun bikaina da. Gainera protagonismoa guduzelaietatik harago zabaltzen du. “Gatazka ez zuten armadek guduzelaian erabaki, industriek etxean baizik”.

Sinplekeriarik ez

Gerra amaitu zen urte berean, 1918an, Txirritak hala esan zuen zortziko handian: “Aleman batek neri esana, /biyok geundela kafian: / “Kaiser agintzen ikusiko da / laister Paris’ko kortian”. / Zepelinakin airetik eta sumarinuak ur-pian, / disgusto asko eman digute / jun daneko lau urtian”. Bertsolariak sinpleki laburbildu zuen Gerra Handia. Baina ez zen bera izan gatazka modu horretan sinplifikatzen, erantzukina Kaiserrari eta, beraz, Alemaniari egotzen lehena. Gerra amaitu baino lehen ere “konplexua zena sinplifikatzen ahalegindu” zirela dio Christopher Clarke, eta horren ondorioz, erantzukizun guztia Alemaniari egotzi ziotela. Cambridgeko unibertsitateko historialari australiarrak *The Sleepwalkers: How Europe Went to War in 1914* (Sonanbuloak:



Kaiserraren aurkako frantziar propaganda militarra. Gilen II.a mundua jaten saiatzen ari da, baina gogorregia dago. Horixe diote azpiko frantsesezko hitzek: “Trop dur”. Italiaraz, aldiz, “L’ingordo” jartzen du, hau da, sabeltzaina.

Europa nola joan zen gerrara 1914an) lana argitaratu du. Haren ustez, gerrako protagonistak sonanbulo modukoak ziren, ez ziren egiten ari zirenaz konturatzen. “Sonanbulismoa duena ez da errudun”, dio. Horregatik, bere lanean ez ditu errudunak sinalatzen.

1920ko hamarkadan, Berdanotte Everly Schmitt historialari estatubatuarrak gerran erabakiak hartu zituzten protagonista askorekin elkarriketa luzeak egin zituen. Solasaldi horietan protagonistek ez zuten autokritikarik egin edo ziurtasunik eza agertu. Oraindik ere sinetsirik zeuden 1914an erabaki zuzena hartu zutela. Eta, zentzu horretan, alderik ez dago protagonistak alemaniarrek izan edo ez.

“Eskolan ikasi nuen europar potentziak Alemaniaren aurka batu zirela, Berlinek probokatu

zirelako”, dio Clarke. “Baina denborak aurrea egin ahala historialarien ikuspuntua zabaldu egin da; Errusia Frantziarekin aliatu zen beldur zelako Britainia Handiak Alemaniarekin bat egingo zuela. 1914ko udaberrian britainiarrak Entente Hirukoitza hausteko eta Alemaniara hurbiltzeko zorian egon ziren. Potentzia nagusiek ez zuten etsai bakarra”. Lehen Mundu Gerra, beraz, ez zen Alemaniaren konspirazio baten ondorio izan. “Nire helburua ez da alemaniarrek errugabetzea, baina gertatutakoaren konplexutasunaz jabetu behar dugu. Guztia ‘zintzoen’ eta ‘gaiztoen’ arteko banaketara mugatzen badugu, ez du ezertarako balio”.

Inperioak behera, armagileak gora

Konplexutasun horren barruan faktore ekonomikoek eragina izan zuten. XX. mendeko bigarren erdialdeko historialariek, gerra azaltzeko, eragile ekonomikoen garrantzia azpimarratzeko joera izan zuten. Izan ere, *Belle Époque*ko oparoaldi ekonomikoak bazituen arrakalak. Inperioak ez zeuden garairik onenean. Afrika banatu berria egon arren, inperialismoaren pastelak ez zituen potentziak lehen bezala asetzen. Historiako inperiorik zabalenetakoa urte batzuk lehenago erori zen, 1898an, Espainiak itsasoaz bestaldeko azken lurraldeak galdu zituenean. Alemaniari Inperioa auzoko potentzia baina txikiagoa zen, eta azalera handitzeko edozein aukera baliatzeko prest zegoen, ahal zela Europatik irten gabe. Baina britainiarrek ere interesak



zeuzkaten kontinentean; haien inperioa gain-behera zetorren eta ezinbestekoa zuten Europa barruan merkatuak zabaltzea. Horrek ez zuen mesfidantza soilik alemaniarrengan piztu; gerran aliatu izango zituzten frantziarrei ere ez zitzaion batere gustatu britainiarren jokabidea. Beraz, inperialismoaren gain-beheraren ondorio ekonomikoek ustezko egonkortasun politikoa ahuldu zuten. “Potentzien arteko merkataritza biziaren atzean kamuflatuta, lehia eta erresumina ezkutatzen ziren”, Gerard DeGroot historialariaren hitzetan.

Gerran garrantzi handia izan zuen beste elementu bat jaso zuen Txiritak bertso hartan: itsasoko, lehorreko nahiz aireko armagintzaren aurrerapena. Hobekuntza teknologikoez eta eskaera gero eta handiagoak bultzatuta, industria hura asko hazi zen gerra aurreko urteetan. Alemaniak, esaterako, inbertsio izugarria egin zuen britainiar ontzidiaren pareko flota osatzeko ahaleginetan. Aldeak alde, hainbat historialarik Gerra Hotzeko egoerarekin konparatu dute XX. mende hasierako armamentu lehia prebentiboa. Norman Angellek uste zuen lehia horrek gerra pizteko arriskua areagotzen zuela, baina arduradun militarrentzat bakea sendotzeko

Emakume langileak munizioa prestatzen Chilwelleko fabrikari, Nottinghamshiren (Ingalaterra). Armagintza industria asko hazi zen gerra aurreko garaian. Are gehiago gerrak iraun zuen urteetan.

bidea zen. Inork ez zuen gerrara joateko asmorik, baina badaezpada horretarako bitarteko guztiak prest zituzten.

Eta gerra piztu zenean arma produkzioak ere eztanda egin zuen. Madril neutrala izan arren, Hego Euskal Herriko armagintzan ederki nozitu zen Gerra Handia. XIX. mendea amaitu bitartean Eibarren egindako 150.000-200.000 arma inguru saltzen ziren urtero. 1910eko hamarkadan kopurua 500.000ra iritsi zen eta gerraren urteetan milioira hurbildu. 1920an 300.000 aleetara jaitsi zen salmenta.

Elementu berri bat: iritzi publikoa

Margaret MacMillanek, agintarien gona kontuak eta xehetasun gordinak alde batera utzita, elementu interesgarri bat du aztergai bere liburuan, ordurarteko gerretan agertu ez zen faktore bat: iritzi publikoa.

Jakina, iritzi publikoa propagandak bideratuta zegoen dagoeneko. MacMillanek dio, sozialismo internazionalistak gerra geldiarazteko ahalmena izan zezakeela, baina potentzien ahalegina medio, nazionalismoa gailendu zitzaiola. “Alemaniako, Britainia Handiko eta Frantziako gizartean nazionalismoa pentsatu baino gehiago barneratu zen. Gerrak



Kanadako 205. Tiger Bataioiari Ontarioko amerikar futbol talde batetik zetorkion izena: **Tiger Athletic Club. Soldadu berriak lortzeko, iragarkiak jokoa eta gerra parekatzen ditu. Punta zorrotzeko kaskoa duena soldadu alemaniarra da eta tigrea, futbol partida bailitzan, arerioa atzitzeko prest dagoen aliatua.**

titularrak “Gerla Haste - Biba Frantzia!” zioen, eta azpian, “Herrialde auzoak gure alde”. 1914ko abuztuan, hiru egunetan, 25.000 gazte abiatu ziren Baionatik frontera.

Gerra laburra espero zuten, eta gainera gerraren pertzepzioa erromantikoagoa zen orduan. Austriar etxekoandre batek idatzi zuenez, “heroismoa, sutan dagoen munduaren ikuskizun bikaina” zen gerra. MacMillanen hitzetan “eraso-gerra miresten zuten eta hori bat zetorren garaiko darwinismo sozialarekin: herrialdeen arteko gatazkak eta lehia, ordena naturalaren parte ziren”.


Atzera martxarik ez

Gerora, inoiz ez bezalako izugarrikeriak gertatu zirenean iritsiko ziren desertzioak, desobedientzia... Baina ordurako atzera egiterik ez zegoen.

1914ko ekainaren 28an Franz Ferdinand eta emaztea zeramatzan autoak ez omen zuen atzera martxarik. Eta, itxuraz, horregatik ezin izan zuten hiltzailearengandik ihes egin. Beharbada horixe bera gertatu zitzaion Europari. Potentzia nagusietako errealtate sozial, ekonomiko eta politikoak osatutako makineriak eztanda egiteko ahalmen handia zuen. Baina atzera martxarik ez. ■



eztanda egin zuenean alde bateko zein beste-ko iritzi publikoek uste zuten eraso egin zituztela eta zilegi zela erantzutea”. Eta ez da urrutira joan behar adibide garbia topatzeko. Gerra hasi zenean *Eskualduna* aldizkariaren



zientzia azoka

galdetu.ikertu.lortu

2013-2014

Ikertzaile gazteen Euskal Herriko zientzia-azoka

EGUNA: maiatzak 24 (larunbata)
ORDUA: 10:30etik-14:00etara.
LEKUA: Plaza Barria, Bilbo
PARTE-HARTZAILEAK:
Lauro Ikastola, San Benito Ikastola, Zangozako Ikastola, Hernani BHI, Begoñazpi Ikastola, Arizmendi Ikastola, Gurutzeta BHI, R.M. Azkue Ikastola, Hirukide, Amor Misericordioso ikastetxea, Egibide, Elorrio BHI, La Anunciata, Ibaizabal Ikastola, Aralar BHI, Axular Lizeoa, Amazabal BHI, Iturrama BHI, Karmengo Ama ikastetxea, Lauaxeta Ikastola, Uzturpe Ikastola

Ez galdu Euskal Herriko ikertzaile gazteenak ezagutzeko aukera!

Zientzia Azoka ekimena gazteek garatutako proiektuen azoka da. Errokan heldu dioten gazteak, ikasturtean zehar, taldeak, haiek erabaki duten galaren inguruan aritu dira lanean: galdetzen, ikertzen, diseinatzeko, erakitzeko, eta esperientzia berriak bizitzeko. Lanaren emaitza ikerketa-proiektu bat nahiz proiektu teknologiko bat izango da, eta, lanak erakusteko stand bana izango dute Zientzia Azokan.

Antolatzailea:

elhuyar
Zientzia

Babesleak:

EURO JUANANITA
Obrak Social 'la Caixa'

FECYT

Kolaboratzaileak:

upna

Deusto

tecnalia

BTE4

Laguntzaileak:

Donostiako Aquariuma, Gaztezuolo, Gipuzkoako parkeak, Karpin Abentura, Skunkfunk, Sobrón Abentura, Rocopolis.



Kontaktua:

zientzia-azoka.elhuyar.org
zientzia-azoka@elhuyar.com
@zientziahezk · 943 36 30 40

PERTSONAIA

ISABEL ITURBE

«Trujilloren garaia beldurgarria izan zen Dominikar Errepublikan»

Behin halako, Gasteizko Olabide Ikastolaren historia berrosatzeko lanetan, garai batean bertako zuzendari izan zen Isabel Iturbe ezagutu genuen. Eta, haren ahotik, uste ez genuen lekukotasuna jaso genuen: Trujilloren Dominikar Errepublikako garai beldurgarria.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero





Zure jaiotza egunak ere badu komeria...

Errege egunean jaio nintzen, Errepublika urtean. Kontraesana, ala? 1931n. Kalean bizi ginen, plazan. Etxetzar handi bat zen, baina botata dago. Bost anai-arreba izan ginen, bi mutilak ziren zaharrenak. Ondoren, hiru neska. Laugarrena, ni. Jaio nintzenerako, amama hilda zegoen. Aitaita ere gazterik hil zen, gure aitak, senideetan zaharrenak, 11 urte zituela. Amaren aldeko aitaita-amamak, berriz, Lasturtik etorritakoak ziren. Lasturkoa genuen guk ama. Aita harakina zen, aitaita izan zen bezala. Udaletxe ondoan zuen harategia. Zestoan, Azpeitian eta Azkoitian zituen harategiak. Hil ere, halaxe hil zen, Zestoako harategitik autobusean zetorrela, jaisterakoan erori, guardasola izterrean sartu eta hortixe hil zen. Aitaitaren lanaren jabe egin behar izan zuen gure aitak, gazterik.

Laster zinen eskolan zu.

Nik uste txiki-txikia nintzela hasiko nintzela eskolan. 3 urte nituela, hor nonbait. Hemen Karitateko mojak ziren, eta hara joaten ginen gu. Orduko eskola zen; dena gatzelaniaz. Entziklopedia bat genuen, eta handixe ikasten genuen. Oso-oso bihurria izan nintzen eskolan... Neuk esatea gaizki egongo da igual, baina oso nota onak ateratzen nituen. Horrek, hala ere, kastigu asko ekarri zizkidan. Neu ez naiz kastiguaren zalea izan, baina kastigua jaso nik, askotan.

NORTASUN AGIRIA

Isabel Iturbe Salegi Bristol (Azkoitia, 1931), Espainiako II. Errepublika garaian jaioa, Errege egunez! Moja mesedetakoa izan zen. Bartzelonan, Modelo kartzelan jardun zuen, presoek lagun egiten. 22 urte berritan, Santo Domingo izan zuen destino. Trujilloren ankerkerien berri izan zuen han. Puerto Ricon izan zen gero, mojen kolegioko irakasle eta zuzendari lanetan. Hogei urte igaro eta itzuli zen Euskal Herrira. Gasteizko Olabide Ikastolako irakasle izan zen lehenik, eta zuzendari gero. Baina hori beste historia bat da, Puerto Ricoko egonaldia bezain zoriontsua Isabel Bristolentzat.

Zer zen zuen giroa Azkoitian?

Garai hartan Azkoitian, etxean dena zen euskaraz. Oraingo moduan. Eta kalean ere, berdin, dena euskaraz. Horretan ez da batera aldatu Azkoitia. Eskolan, orduan, batere euskararik ez zen. Hala ere, erraz jarri ginen. Gure etxean asko irakurtzen zen. Gure aita zenak asko irakurtzen zuen. Beti egoten zen gurean egunkaria. Etxe aurrean, berriz, maisu-maistrak bizi ziren, familiarik ez zeukatenak. Gure amak tratu handia zuen haiekin, oso etxeakoak genituen eta, esaterako, euskara eta gatzelania batera ikasi nituela esango nuke. 15 urte arte egon nintzen Azkoitian, eskolan. Gero, urtebete Bartzelonan egin nuen, Divina Pastora kolegioan, manuerdiko. Gure etxe aurreko maisu-maistra haiek zuzendu gintuzten

hara. Lehenengo, nire ahizpa zaharragoa, eta ondoren ni.

Bartzelonara joan zinen 15 urte beterik. Zer ikusi zenuen han?

Ikusi? Bartzelona osoa, kar, kar, kar. Hemen egon zen maisu hura serio-serioa zen, barre-rik ez zuela egiten ematen zuen, baina hare-kin irtenez gero Bartzelona osoa ikusten zenuen! Haren emaztearekin irtenez gero, zinemara edo antzokira joango zinen. Asko ikasi nuen hango kolegioan. Gero, bueltan, Zumarragara joan nintzen, 18 urte nituela, moja mesedetakoa. Bokazioa etorri zitzaidan, eta joan. Ez duzu ulertzen. Misterio pixka bat bada. Dena elkartzen zaizu. Ez dakit nola den ere. Etxean inork ez ninduen animatu, eta desanimatu ere ez. Ez nuen oztoporik izan, neuk nahi nuen joan. Egia esan, misioe-tara nahi nuen nik. Horixe zen nire poza, misioetara joatea. Apaiz batek bideratu nin-duen Zumarragara, baina misioetara joatea zen beti nire gogo.

Misioetara baino lehen bazen egin beharreko biderik...

Jakina. Urte eta erdi egin nuen Zumarragan. Lehenengo, nobizio, eta gero botoak egin genituen. Handik Zaragozara, 20 urte nituela.

Zigorra

"Eskolan, bizkarrean jarri txartel handi bat 'por descarada' (lotsagabea izateagatik) esaten zuena, eta gelaz gela ibili behar izan nuen behin. Oso kastigu gogorra izan zen. Pena bat gelditu zait gogoan, txartel hura lehenengo gelatik irten nuenean laga eta ihes ez egin. Pena horixe. Baina hori gerora pentsatzen duzu".

Umezurztegia zuten han, Agustina Aragoi-koa. Gerran zurtz geratutako neskak zituzten han. Urte eta erdi egin nuen eta, hala ere, beti estudiatzen. Itxura, gazterik hartu ninduten, eta estudiatzen beti! Handik, Bartzelonako Modelo kartzelara bidali ninduten. 22 urte nituela! 1953. urtea zen. Kartzelan bertan genuen moja-etxea. Bi mila preso zeuzkaten, denak gizonetakoak. Han ere estudiatzen ni, Batxilergoa eta beste. Eguartean izaten nin-tzen kartzelan, heriotzara kondenatutakoe-kin. Haiek ez ziren besteekin batera patiora irteten. Gainerakoak ziegara sartu, eta irteten ziren haiek. Jatordua ematen nien. Gazte-gazte ni, eta hantxe! Heriotzara kondenatuak hainbat ziren han. Preso politikoak, nire sasoiak, bat, Zaragozakoak. Ni han nengoela bi hil zituzten. Garrotea, nonbait. Borreroa etorri zela esaten zuten, misterioan. Hark ere han zuen etxea. Ni gazte, eta ez nintzen nola hiltzen zituzten ikustera joaten.

Latza...

Esperientzia bat. Euskararekin ere izan genuen zerbait. Arrasateko bat bazen gurekin batera Bartzelonan. Arrasateko Txikito zuen anaia, pilotaria. Gizon handikote bat. Hura ikustera joaten ginenean, haiek dena katala-nez, eta guk berriz, euskaraz, eta haserretu

Kalean da maiatzeko



aizu!

- Zoroen itsasontziari bisita
- Samien lurraldea zeharkatzen
- Jokin Oregi arin-arin
- Larrungo trenak, 90 urte
- Harrobia, eztabaida iturri Mendiaundin

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizunet.org

egin zitzaizkigun. Guk dena ulertzen genien, eta haiek guri aldiz, ezer ez. Eta haserretu. Esperientzia ona izan zen Bartzelonakoa. Bizimodua zer den ikusi nuen bi urte haietan. Handik Ameriketara, 21 urterekin. Han konplitu nituen 22.

Bizimodua zer den ikusi zenuen, esan duzunez. Bizian ikusiko zenuen guztia, beharbada.

Ikusiko nuen guztia ez, Latinoamerikan ere gauza asko ikusten dira-eta. Nire mundutik kanpo nengoen Bartzelonako kartzelan. Azkoititik irten nintzen, gazte-gaztea... eta kartzelako haiek ere ez zeuden han igandero-igandero mezatara joateagatik! Preso eta kondenatuekin ginen, entzuten genuen zer esaten zuten, zer egiten zuten... Alfer eta gaizkile edo homosexual izateagatik...

Bartzelonatik Ameriketara...

Harako destinoa eman zidaten. Bazekiten nik misioetarako gogoia neukala. Joera hori nuela. Santo Domingora joan nintzen, Dominikar Errepublikara, Trujilloren denboran. Hori beste mundu bat da. Barku zahar-zahar batean joan ginen, Bartzelonatik irtenda. Beldurgarria zen hura. Hamahiru egun barku zahar-zahar hartan. Lehenengo eskala, Tenerifen; bigarrena, Puerto Ricon; hirugarrena, Santo Domingon.

Nolakoa zen Trujilloren Dominikar Errepublika?

Ene, ene! Lehenengo egunetan, hango mojek hartu gintuzten eta komentuak ikustera eramant gintuzten. Batera eta bestera bidean eta “*¡Dios y Trujillo!*”, “*¡Dios salve a Trujillo!*”, “*Esta casa es de Trujillo*” ikusten genuen txartel handietan. Den-den-dena horrelaxe. Hura zen beldurgarri-beldurgarri-beldurgarria. Esaten dena gutxi da. Komentuan ere ez zegoen askatasunik Trujilloren gainean hitzik egiteko, ez zenekien grabatzen ari ote ziren! Dena zuen berea. Kolegio handi bat baguen han, barnetegia. Neska asko sartzen zituzten barnetegietan, gurean nahiz beste batzuetan. Trujillori neska bat gustatzen bazitzaion, eta deskuiduan neska hark kasurik egiten ez bazion, edo nahi ez bazion, kito neska haren familia. Pikutara! Ez dakit *La fiesta del chivo* irakurria duzun...

Mario Vargas Llosarena. Bai.

Oso eskasa iruditu zitzaidan. Eskas-eskasa. Gauza asko zegoen esateko, baina ez zuen esan. Oso eskasa liburua. Trujillo beldurgarria izan zen. Esaten dena, gutxi. Eta semea, berdin. Behin, semeak banketea eman eta esan zuen: “Orain postrea emango dizuet”, eta jendearekin satora jaitsi eta, han, ileetatik esekitako pertsonak, azkazalak kendutako-

Bristol

“Bristol gara gu Azkoitian. Herrian gaitzizena daukagu denok. Gure familiarena Bristol da.

Aitaitarengandik datorkigu. Intxausti baserrian jaio zen, baina ezkondu eta kalean jarri zen bizitzen. Diote oso bizipozekoa zela. Karnabaletan, esaterako, zaldi gainean ibiltzen omen zen beti. Joaten omen zen esanez: ‘Bristol kandelariel’.

Berak jakingo zuen zer esan nahi zuen! Haren familia guztia Intxausti zen, Intxaustin jaiotakoa, baina berak Bristol haren kontua atera zuen, eta harrezkero Bristol gara, Intxausti gabe”.

ak... Horixe erakutsi zien! Beldurgarria! Jaun eta jabe zen. Trujilloren iloba bat komentura etorri ohi zen, eta harekin, Trujilloren palazioa ikusi nuen. Nobela askotan “urrezko grifoak” eta gainerakoak aipatzen dituzte. Bada, halakoxe etxeak zeuzkan. Hondartza pribatuak, nahi adina. Haren ilobarekin ikusi nituen horiek denak. Esaten dudana gutxi da. Noiznahi, “*¡Una salve por la preciosísima salud de Trujillo!*”, “*¡Te deum por Trujillo!*”... Eliza ere horrelaxe. “*Padre de la patria*”, “*Benefactor de la patria*”... Izan zitezkeen titulu denak zeuzkan Trujillok. Txapas esaten zioten, paparra txapaz beteta zeraman-eta. Baina buruan sartu zitzaion “*Protector de la Iglesia*”, “*Benefactor de la Iglesia*” eta beste titulu batzuk eman behar zizkiola Elizak. Garai horretan, aldatu egin zuten nuntzioa. Monsinore Faninik hartu zuen kargua. Haren idazkariak (Mario Tadría Ferri, gero Espainian nuntzio egon zena) igandeetan nuntzio berriak idatzitako sermoia irakurtzen zuen. Nuntzio berria gauzak esaten hasi zen, Trujilloren diskurtsoari buelta ematen hasi zen, eta denok elkarri begira: “Hau zer esaten ari da, ordea?”. Orduantxe hasi zen Trujillo Elizaren kontra, eta orduantxe asmatu zuten Trujillo akabatzea ere...

Elizaren kontra eraso zionean...

Bai, bada! Komentuan bagenuen moja bat, Estrella. Honen anaiak Trujilloren bizkar-tzain egiten zuen. Hark eta beste hiru lagunek Trujillo akabatzea pentsatu zuten. Trujilloren kontrako atentatu saio asko izaten ziren, baina ez zuten arrakastarik. Gure moja horren anaiak-eta, ordea, oso ondo organizatu ziren. Militarrekin bat eginda zeuden. Bazuten Trujilloren ibileren berri. Oso emakumezalea zen Trujillo, eta bazekiten gauzez nola irteten zen eta joaten zen halako eta halako etxeetara... Baten bat bazuten barruan haiek. Esanda zeukaten, Trujillo hilko zutela eta militarren aurrera eramango zutela gorpua. Gainera, Trujilloren semea ere ez zegoen Dominikan orduan. Parisera etorritako zegoen hura. Horrela, Trujillo irten da gau hartan, besteek abisua jaso zuten, eta malekoira irten zenean, akabatu egin zuten. Txoferra ere hil zuten beraien ustetan, baina bizirik irten zen, eta arrastaka-arrastaka, hurren zeukan ospitalera joan zen. Alarma jo zuen. Beste hauek, Trujilloren gorpua sartu maletategian, militarren aurrera eramant, eta hauek atzera egin! Egon omen ziren gau osoan gorpu harekin zer egin ez zekitela. Akabatu zutenek beraiek hartu behar izan zuten, eta ezkutatu. Bitartean, semeari jakinarazi zioten, eta hartu abioia eta zuzenean etorri zen Santo Domingora. Trujillo akabatu zuten, baina ezer ez zuten lortu! Lau haiek



AZKEN HITZA

Mundua jende

"Bartzelonako Modelo kartzela mundu berri bat izan zen niretzat. Jendearekin tratatzen ikasi nuen, eta mundua ez dela norberak ikusitakoa bakarrik, badela besterik. Beste ikuspegi bat".

ezkutatu egin ziren. Ni ordurako Puerto Ricon nengoen. Eta haien arreba Estrella hura ere bai. Pentsa ezazu zer egun pasatu zituen gure moja hark, anaia egoera hartan eta! Izan ere, bizkartzain izandako hura ere preso hartu zuten, eta arreba preso hartu zutela esaten zioten, eta hau eta hura egin ziotela, ez ziotela eta baziotela... Denborarekin, lau lagun haiek hil zituzten. Santo Domingon, berriz, Trujilloren semea jarri zuten agintean eta ez zen ezer lortu, ez egoera aldatu ez ezer, ondo gerora arte, behintzat... Galindezena ere jakingo duzu, ezta?

Horrek ere badu istorio... Trujillo hil zutenean ez zeundela Dominikar Errepublikan esan duzu. Sei urte egin nituen Santo Domingon, eta hamalau Puerto Ricon. Baina zuzen-zuzen jakin genuen Trujilloren zera hura, plana, izena eta dena. Haitiarrek ere edozein momentutan akabatzen zituzten, bide bazterrean, azukre kanpainara etortzen zirenean. Hura beldurgarria izan zen, beldurgarria. Puerto Ricon diferente izan zen: immigrazio legeak oso estuak ziren, eta ikasle eman behar izan nuen denbora guztia. Teologia ikasketak egin nituen, ingelesa ikasi nuen... Udan Pittsburgera joaten ginen, ingelesa lantzerantz. Gure komunitateak kolegio berria egin zuen Puer-

Euskal Herrira

"Hogei urte egin nituen Ameriketan. Artean joan berritan bete nituen 22 urte, eta 42 nituela itzuli nintzen Euskal Herrira, 1973an. Hemen, Valladolidera bidali nahi ninduen komunitateak, baina ezetz esan nien, Euskal Herrian egoteko etorri nintzela ni Ameriketatik".

ISABEL ITURBE

to Ricon, eta irakasle lana egin nuen. Zuzendaria Errusian jaioetakoa zen, aita poloniarra zuen, ama lituaniarra, baina AEBetako erresidentzia agiria zuen. Hogei urte aurrerago bizi zen hura. Etorkizuna ikusteko gaitasuna zuen, mundua ikusteko moduan ere aurrera bizi zen hura, oso aurreratua zen. Urrutitik ikusten zuen zer zetorren. Urte askoan izan genuen zuzendari, eta ni haren laguntzaile. Ikusmena galtzen hasi zen, ordea, eta zuzendari nahi izan ninduten. Horretarako, unibertsitate bidali ninduten, hiru urteko graduondoa egitera, Eskola Gainbegiratzeara eta Administrazioa ikasketak, zuzendari izateko derrigorra zen.

Puerto Ricon baziren euskaldunak. Frantziskotarrak, pasiotarrak...

Oso lagunak, denak! Frantziskotarrak eta pasiotarrak. Etxebeste, Unzurrunzaga, Mariano Errasti... Joan Mari Torrealda ere han ezagutu nuen nik. Izenez, pasiotarrak ez nituen hainbeste ezagutu. Baina frantziskotarrak bai, Burgosko prozesuaren garaian bilek egiten zituzten-eta. Santa Ageda zenean ere etxe batean edo bestean biltzen ziren. Urtain joan zenean —sekulako porrota izan zuen—, han joan ziren fraide horiek denak, ikurrinak hartuta. Harreman handia izan nuen frantziskotarrekin nahiz pasiotarrekin. Ahizpek esaten zidaten frantziskotarrek aldatu zutela nire burua...

Zer ikasi duzu hor zehar ibili zarenean?

Esperientzia bat izan da. Aberasgarria. Horixe izan da nire bizitza. Zazpi urtez egon nintzen Puerto Ricoko kolegioan zuzendari, baina hona etortzeko zera egin zitzaidan. Ez dakit, bada! Hamalau urte pasatu nituen aita-amak ikusteke... Tira, Ameriketan hamar urte neramatzala etorri nintzen, hilabete: aitak bihotzeko txiki bat izan zuen eta etorri nintzen, han zen Azkoitiko moja batekin batera. Gero, buelta. Hurrena betiko etorri nintzenean Zumarragako komentura joan nintzen, baina Azkoitiko etxean hiru-lau hilabete egin nituen. Ez neukan osasun txarra, baina zer edo zer... Txita bat baino gehiago ez nuen jaten.

Santo Domingo, Puerto Rico...

Santo Domingokoa zen mundu bat, eta Puerto Ricokoa, beste bizimodu bat. Oso-oso-oso gustura egon nintzen ni Puerto Ricon. Oso gustura. Horixe da nire bizitza. Gero, Euskal Herrira etorri nintzenean, Olabide Ikastolako urteak etorri ziren, Gasteizen, urte onak haiek ere, baina Olabide Ikastola bezain ona izan zen niretzat Puerto Rico. ■



Nola bihurtu baserria energetikoki burujabe... alferrik bada ere

Iaz, Zeraingo Garro baserriko jabeek etxea gaur egungo behar energetikoetara egokitzeko proiektua jarri zuten abian. Adituen laguntzarekin, eraikina berrokupatu nahi zuen familiako gaztearen neurriko azpiegitura proiektatu zuten, baita asmoa teknikoki bideragarria zela ikusi ere. Tamalez, bestelako trabak behartuta bazter batean geratu da egitasmoa; batez ere Espainiako Gobernuak iragarritako erreforma elektrikoa bihurtu da oztopo. Autokontsumoa zigortzeko ezarriko diren neurriak, bereziki.

| IKER IÑIGO |

EUSKAL HERRIKO ekonomia aldaketa sakon-
nean murgilduta dago. Hori ondo dakite gaz-
teek, eta badakit ere eurek irauli beharko
dutela egoera, baina gehienek ezin dute gura-
soen etxetik joan; lanik ez dutelako edo, lana
izanda ere, etxea alokatzeko adinako soldata-
rik ez dutelako. Abandonaturik izateko arris-
kuan dauden landa-etxeak berrokupatzea
aukera ona da hipoteken menpe bizi nahi ez
duten gazteentzat. Baina, zer muga du horre-
lako proiektu batek?

40 urte dira Garro baserriko (Zerain,
Gipuzkoa) bizilagunak etxea laga eta hirira jai-
tsi zirela. Horren ostean, 1901ean eraikitako
baserria udako etxe bilakatu zen
famiarentzat; altxor bat Goie-
rriko bazterrik ezkutuenetako-
an. Altxor hori baliatu nahi izan
du familiak, eraikina etxebizitza
bihurtu. Bide horretan, base-
rrian bizi behar zen gaztearen
beharren arabera proiektua
diseinatu nahi izan dute. Ez
hori bakarrik; proiektua ekolo-
gikoki sustengagarria izan behar zen.

Azkenean, ordea, asmoa bertan behera
uztea erabaki dute. Arrazoi nagusietako bat
autokontsumoa zigortzeko Espainiako
Gobernuak agertutako nahia da; artikulua
honetako azken orrialdeko koadroan azaltzen
dira Madrilera indarrean jarri nahi duen
dekretuaren nondik norakoak. Baina energi-
aren ikuspuntutik, proiektua bideragarria zela
ikusi zuten Garroko jabeek.

Efizientzia termikoa eta elektrikoa

Baserri eta “baserritar” garbi eta efizienteak
lortu nahi izan zituzten, energiaren erabile-

ran. Garbia, ingurumenarekiko errespetuaga-
tik; efizientea, berriz, horrexegatik eta poltsi-
koa zaintzea garrantzitsua delako. Gainera,
ahal zen heinean energetikoki burujabe izatea
ahalbidetuko zuten neurriak hartu zituzten,
baserriak bere burua horni zezan. Energia-
hornitzaileekiko dependentziak bizi-kalitatea
jaitsi ohi du eta. Helburu hori lortzeko lehe-
nengo urratsa etxea egokitzea zen. Horreta-
rako, Xabier Uzin eta Asier Valenzuela adi-
tuak kontratatu zituzten. Uzinek eta
Valenzuelak erregulazio termikoa eta horni-
dura elektrikoa hobetzeko ikerketa egin
zuten.

**Legez, sortzen dugun energia
elektrikoa sare orokorrera
bideratzera behartuta gaude,
sareak estaltzen duen eremuan
baldin bagaude behintzat**

Diseinua egiten hasi aurretik,
teknikariak argi utzi nahi izan
zuten eraikinaren erabilera
aurrez definitzea garrantzitsua
zela, alegia, han biziko zen gaz-
teak zein bizimodu egingo
zuen, horrek diseinuan eragiten
baitu. Horregatik, kontuan
hartu zen pertsona bakarra
biziko zela etxean, etxetik eta

ordenagailuz egingo zuela lan, eta beharbada
egun batzuetako bisitak jasoko zituela noi-
zean behin. Sortu beharreko energi kopurua
aurreikusteko, neguko ohiko egun hotz bat
hautatu zen, kontsumo handieneko eguna
litzatekeena. Horrekin, kasurik txarrenari
aurre egiteko moduko energia kantitatea lor-
tuko litzateke.

Hona iritsita, garrantzitsua da ulertzea bi
sistemak, elektrikoa eta termikoa, indepen-
denteak zirela. Beroa lortzeko, uneoro eraba-
kiko zen zenbat egur bota sutara; gainontze-
koa biltegian gorde zitekeen. Energia
elektrikoa, berriz, eguzkitik lortuko zen.



Garro baserria, Zerainen (Gipuzkoa).

Etxeko biztanleak ezin zuen aldagai hori kontrolatu, jakina, eta hori arazo bilaka zitekeen.

Neguan eguzki-energia gutxiago aprobetxatzen da udan baino; kontsumoa, ordea, handiagoa da, etxean ordu gehiago pasatzen baitugu. Edonork pentsa lezake horri aurre egiteko modurik sinpleena bateria bat jartzea eta energia-soberakina metatzeko zela, behar zenean erabiltzeko. Baina ez da hain erraza. Alde batetik, bateriak oso garestiak eta kutsatzailerak dira; eta bestetik, legez, sortzen dugun energia elektrikoa sare orokorrera bideratzera behartuta gaude, sareak instalatzen duen eremuan baldin bagaude behintzat. Horrek esan nahi du plaken bidez eraldatutako energia hornitzaile elektriko handiei saldu behar diegula eta kontsumitu nahi duguna atzera haiei erosi. Horrela, sortzen dugunaren eta kontsumitzen dugunaren arteko diferentzia soilik ordaindu beharko dugu.

Subiranotasunik handiena urte guztian erabiliko den energia elektrikoaren aurreikuspen fina egin eta horixe sortzeak ematen du, plaka kopurua beharretara egokituz, esaterako. Interneten kontsulta daiteke eskualde bakoitzean eskuragarri dagoen eguzki-energiaren balioa.

Subiranotasunik handiena erabiliko den energia aurreikusi eta horixe sortzeak ematen du. Interneten kontsulta daiteke eskualde bakoitzean eskuragarri dagoen eguzki-energiaren balioa

Egurra, bero iturri

Bero-energiara itzulita, adituek esan zuten baserriaren berezitasunak ondo identifikatzea ezinbestekoa zela. Indarguneen artean kokatu zituzten, esaterako, baserriak pinudi handiak dituela mendian eta bertatik egur asko jaso zitekeela, erregai gisa erabiltzeko. Gainera, eztabaida handia egon bada ere, gehiengoak onartzen dugu egurra energia-iturri berriztagarria dela, baldin eta birsorkuntza-tasa ustiatze-tasa baino handiagoa bada.

Garroren kasuan baldintza hori betetzen zen, eta besteak beste horregatik aukeratu zuten erradiadoreak beheko suaren bidez berotzea. Hala ere, basoak mendian gora zeuden eta bertatik egurra ateratzeko esfortzu handia egin beharko zen; gutxieneko makinaria ere bai. Gainera, intsinis pinuaren (*Pinus radiata*) landaketei zilegitasuna ematea ez da munduko jarrerarik ekologikoena, baina hori beste eztabaida bat zen, basoa birlandatzeko garaia iritsitakoan garatu beharrekoa.

Bero-energia sortzen itsutzea baino, bero hori aprobetxatzen asmatzea da gakoa, eta horretarako beharrezkoa zen itxiturak indartzea; baita bero-metagailua jartzea ere, duxako

Autokontsumoa luxu bihurtuko duen dekretua

ZALAPARTA HANDIA sortu zuen 2013ko uztailan Espainiako Gobernuak iragarritako erreforma elektrikoak. Zati polemikoen, beharbada, autokontsumoa erregulatzeke dekretuaren zirriborroa izan zen. Hamar hilabete igaro ostean dekretua ez dago indarrean oraindik, eta ez dago argi noiz egongo den, ez eta aldaketarik jasango duen ere, baina horrek ez du eragotzi aurkako erantzun zabal eta irmoa sortu izana. Madrilen asmoen kontrako jarrera Eredu Energetiko Berri Baterako Plataformak (EEBBP) bultzatutako Desolbediencia (Desobekientzia, itzuli dute euskarara) kanpainan gorpuztu da batez ere. Talde ekologistak, berriztagarrien sektoreko enpresak, sindikatuak... denetik aurkitu dezakezu plataforman.

Eguzkiaren izena erabiltzeak erabateko zentzua du. Izan ere, autokontsumoa egiteagatik PPrene Gobernuak ezarri nahi duen zergari (*peaje de respaldo*, gaztelaniaz) “eguzkiaren gaineko zerga” deitu izan zaio. Funtsen, zera da: energia bere etxean sortzen duenak –argazkikoa bezalako plaka fotovoltaikeen bidez, normalean– zazpi zentimo ordaindu beharko du autokontsumitutako kwh bakoitzeko. Bestela esanda, askoz garestiago suertatuko zaio elektrizitatea bere kabuz sortzea sare orokorretik hartzea baino.

EEBBPko Zuhaitz Areitiok azaldu digunez, dekretua indarrean jartzen denean zentzua galduko du autokontsumoak, alderdi ekonomikotik zama



KEN FIELDS-CC BY SA

handiegia izango baita. Horregatik, eta Garro base-riaren kasuan bezala, Espainiako Gobernuaren asmoak jakinarazi zirenetik nork bere etxean energia sortzeko proiektu asko –gehienak ez esatearren– geratu dira bertan behera, konpainia elektriko handien mesederako eta energia berriztagarrien garapeneren kalterako. Desobekientzia kanpainak, hain justu, protesta hutsetik harago joan eta desobekientzia egitera dei egiten du: dekretuari jaramonik egin ez eta autokontsumorako instalazioak jartzera animatzen dute, zigorrak zigor.

Unai Brea

ura –udan ura berotzeko balio duten plaka termiko batzuen bidez berotuko zen eta neguan beheko suarekin, ur beroa urte guztian behar baitugu– eta geletako erradiadoreak –neguan soilik– nahi zirenean eta nahi beste berotzeko.

Isolamendua hobetzea, gakoa

Halaber, berotuko ziren gelen isolamendua hobetzea ezinbestekotzat jo zuten adituek, efizientziagatik. Gaur egun etxeak dituen itxiturekin, sortutako beroaren zatirik handiena oso denbora laburrean galduko litzateke. Horrenbestez, leiho eta ateak aldatzea ezinbestekoa zen horrelako proiektu batean, horiek baitira baserri zaharretan galera gehien dakartzaten guneak. Etxe barruko hormak meheak direnez –kanpokoak ez bezala–, bero dezente galtzen da horietatik, batez ere beroztatutako eta beroztatu gabeko gelen arteko paretetan barna. Izan ere, gehien zapalduko ziren gelak soilik berotzea erabaki zen, ez etxe osoa.

Sistema elektrikoaren ikuspuntutik, indargune nagusiak honakoak ziren: alde batetik, base-riak hegoaldera begira du teilatu erdia eta, beraz, plakak jartzeko egokia da; eta bestetik, eguneko ia ordu guztietan iristen dira eguzki-

izpiak Garroren teilatura. Auzoa sare orokorren estaldurapean egoteak alde negatiboa eta positiboa zituen, ikuspuntuaren arabera. Batetik, subiranotasuna galtzen zen; bestetik, ez zen metatze-mekanismorik beharko, uneoro izango baitzen elektrizitatea eskuragarri.

Esan gabe doa: horrelako proiektu batean sartzen denak argi izan behar du, ezertan hasi aurretik, bere pentsamoldea egokitu beharko duela. Horrek, bizi-eredua egoerara doitzeko eskatuko dio; eguneroko jarduna, ohiturak... proiektuaren inguruan artikulatu beharko ditu.

Esan dugunez, egitasmoa bertan behera geratu zen azkenik. Batetik, Eusko Jaurlaritzak, EVeren bitartez, energia berriztagarrietan oinarrituriko proiektuen bideragarritasun-ikerketen %50 laguntzen du diruz, kasurik onenean, eta materialak eta instalazioak kostatzen duenaren %30-35. Laguntza hori ez zen nahikoa proiektua aurrera atera ahal izateko. Horri, noski, Madrilgo Gobernuak ezarri nahi duen dekretua gehitu behar zaio. Badirudi zenbait politikarik, energia berriztagarrien alde lerrokatu baino, nahiago dutela gazteak interes zaharrak ordaintzeko eskulan merke gisa erabili. ■



Kameraz zelatatzen dute langileon jarduna

Gazte prekarioa naiz, gutxira arte enpresa batean langile, eta ezkutuan mantendu nahi ditut nire datu pertsonalak, ondorengo lerroetan kontatuko dudanagatik enpresan jarraitzen duten langileek eta nik neuk kalterik jasan ez dezagun.



KOKATUKO ZAITUZTET. 2013ko abendura arte lanean aritu naiz Euskal Herriko enpresa batean, eta ikaragarria da ezagutzea langileak horrelako baldintzetan ari diren enpresarik badela gure inguruan. Bertan zortzi orduko lanaldiak egiten dituzte, beste enpresa askotan bezalaxe, baina hogeit minutuko deskantsu tarteak besterik ez da izaten, otorduak, komunerako denborak eta abar kontuan hartuta. Ez dago beste erremediorik, osterantzean ez zara egunean produzitu beharreko produktu mailetara ailegatzen. Egunero kopuru jakin bat produzitu behar izaten du beharginak, eta hor sartzen dira lehiak; sail bereko beste lankide batek zuk baino gehiago ekoizten badu, lehenengoan abisua pasatzen dizute, bigarrengoan urduri jartzen hasten dira, eta hala segituz gero kalera botatzen zaituzte. Gu saiitzen ginen gure sailekoen artean produkzio kopuru batzuk adosten, nagusiak gustura edukitzeko moduko neurria, baina aldi berean langileok ito gabe aritzeko. Bestela, ikusiz gero gehiagora hel gaitezkeela, handik aurrera ez liguke lehengo neurrietara itzultzen utziko; exijentzia maila gero eta altuagoa da.

Produktua eta zenbakiak interesatzen zaizkie nagusiei, eta langileak produktu hori egiten duten objektutzat besterik ez gauzkate. Lantegiko edozein arriskuren aurrean babesetako oinarritzko elementuak ere kostata ematen dituzte. Langile batek beharrezkoak badi-tu eskularru bereziak, lehenago merkeago

batzuk ematen ahaleginduko dira. Eta behin eta berriz eskatzearen poderioz lortu behar izaten dira gauzak. Langilearen segurtasuna bost axola zaie! Hori bai, langileak eskularru berezi horiek ez dauzkalako beharrezkoa baino gutxiago produzitzen badu, izugarri-zko errieta jasan behar izaten du. Askotan langileari errespeturik gabe hitz egiten diote: “gaur ze *mierda* produzitu duzu” eta horrela-koak entzun behar izaten dira.

Kameraz josita dago enpresa, eta langileon jarduna zelatatu dezakete. Lankideekin hizketan aritzeak ondorioak ekar ditzake, nahiz eta beste aitzakiaren bat asmatuko duten kargu hartzeko, ezin baitute esan kameretatik zela-tan egoten direla.

Eta noski, ez dago ordezkari sindikalik enpresan. Izan dira langileak, euren eskubi-deen defentsan mugitzen hasi direnak, baina enpresak errotik moztu izan ditu beti horrela-ko ekimenak. Izua zabaltzen dute, eta horren poderioz funtzionatzen, bai baitakite langileak lan horren beharrean daudela eta norbait botaz gero beste hogeit pertsona edu-liko dituztela postu horren eske.

Jendeak oraindik ere sinesten du horrela-ko baldintzetan Bangladeshen aritzen direla eta gurea ongizate gizarte bat dela. Baina eskubi-de guztiak zapaltzen ari zaizkigu eta elkertasunean borroka egin beharra daukagu. Bakoitzak bereari baino ez badio begira-tzen, jai daukagu. ■



KAIRO

Niloko Paris omen zen hura

Egiptoko gainbehera ekonomikoaren ikur bilakatu dira Kairo erdialdeko eraikin abandonatuak. Hirigunea husten ari dira, desertuko urbanizazio berrien onurarako. Egungoak ez du itxura onik, baina egoera eraldatzeko garaiz dira oraindik.

| ANE IRAZABAL |

Argazkiak: Hamada Elrasam

SAYD ABU FATTAK 30 urte daramatza Kairoko Yacoubian eraikineko *bawab* edo zaindaria izaten. Hiru hamarkada horietan denetik ikusi du, bai eraikineko hormen barruan, baita kanpoan ere. Abu Fattari xehetasun batek ere ez dio ihes egiten, izan ere, hastapenetik igogailuaren ondoko eserlekua izan du bizitoki bakarra. “Kairo fundamentuzko hiri bat zen, baina orain, kaos hutsa da”, dio hase-re. *Bawab* izatea ez da erabaki bat, familia kontua baizik. Aitaren lekukoa hartu zuen eta hark aitonaarena, landa eremutik hirirako bidea egin zuen familiako lehena. Abu Fattak, egiptoar gehienek bezala, *Masr* (Egipto) deitzen dio hiriburuari, eta ez da deskuidu baten ondorio. Niloko herritarrentzat “munduaren ama” da Kairo.

Bawaben istorioak entzutea gomendagarria da Egiptoko hiriburuaren azken hamarkadetak eraldaketa sozio-ekonomikoa ulertzeko. Kairoko eraikin guztiek daukate zaindari bat, baita abandonatuak ere. Zalan-tzarik gabe, interesgarriagoa izan ohi da iraganaren arrastoak *bawab*engandik ezagutzea, literatura nostalgikora jotzea baino. “Eraikina zatika erortzen ari da. Apartamentu gehienak hutsik daude, jabeak kanpora joan direlako. Mamuen etxea dirudi”, adierazi digu.

Baina Yacoubian barruko hustasunak talka egiten du kanpoko erritmo frenetikoarekin. Alaa al Aswany idazleak famatu egin zuen art déco eraikinetik atera eta Taalat Harb kaleak

agintzen du paisaia. Bi espaloiak saltzaile ibiltariz lepo daude eta oinezkoak nekez mugi daitezke trafiko kaotikoaren erdian. Inork gutxik erreparatzen die etorbide luze honetako etxe ikusgarriei. Gora begiratu behar da horretarako, eta Kairon oso zaila da eraikinei begira jarritz gero autoren batek ez harrapatzea.

Taalat Harb kalea XX. mende hasierako loraldi ekonomikoaren ikur nagusitzat jotzen dute adituek. Bauhaus estiloko eraikinak, hotel modernistak, kristalezko kupulak... iraganeko arkitektura eklektiko bezain aberatsaren lekuko irmoa dira. Alta, desertuko hareak distira hori guztia itzali du. Azken hamarkadetan gizarte bazterkeria erruz nabaritzen da Kairo erdiguneko txoko guztietan.

Gainpopulazio arazo handia daukan hiria izanik, nekez uler daitezke datuak: estatua da *downtown*-go (hiriguneko) eraikinen %60ren jabe, eta horietatik %85 hutsik daude. Egiptoko ekonomia kontrolatzen duten militarrek hiri sateliteak dituzte nahiago, eta ondorioz, ihesaldia pairatu du erdiguneak. Egiptoko Unibertsitate Amerikarrak, adibidez, Tahrir plazako egoitza nagusia utzi eta campus erraldoia eraiki du *New Cairo* izeneko kanpoaldeko hiri isolatu batean. Bizitegi-gune berriak bisitatzeko besterik ez dago Palestinan egindako kolonia judutarrekin daukaten antz susmagarriak jabetzeko.

Atzera begira

Kontakizun erromantikoek diote metropoli dotorea izan zela Kairo duela ez hainbeste: 1867an, Ismail Pasha Egiptoko kedive izandakoa Parisera joan zen, eta, Haussmannen diseinuez txunditurik, hiri moderno bat eraikitzeko agindua eman zuen. Hala, eraldaketarako Parisko hirigintza oinarri hartuz, Nilo

Egiptoko ekonomia kontrolatzen duten militarrek hiri sateliteak dituzte nahiago, eta ondorioz, ihesaldia pairatu du erdiguneak



ibaiaren eskuineko bazterrean *bourgeoisie*-en neurrira egindako auzoa altxatu zuen. Teoria horren defendatzaile sutsua da Cynthia Myntti arkitektura irakaslea, eta hala argudiatu du *Paris Along the Nile* (2003) liburu ospetsuan.

Analisi horrek, baina, baditu bere alde ilunak. Mohamed El Shahed ikerlariaren aburuz, teoria biziki orientalista da Mynttirena: “Europarentzat, Ekialde Hurbileko garapen eredu guztiak haren kopia bat dira. Sentitzen dut, baina Egiptok ez zuen Parisko eredua jarraitu”. Hirigintzari buruzko *Cairo Observer* webgunearen egilea da El Shahed, eta arduraz begiratzen dio iraganaren irakurketa orientalista eta erromantikoari: “Sektore pribatuak bultzatutako proiektua izan zen zabalgunearena. Jatetxeak, zinemak, antzokiak... klase ertain sortu berriaren nahiak asetzeko tresnak ziren. Aldiz, egiptoar gehienak erdigunetik kanpo utzi zituzten”.

Finean, Kairo erdialdearen historia pragmatikoagoa da. Dirudunek alde zaharra utzi

Gainpopulazio arazo handia daukan hiria izanik, nekez uler daitezke datuak: estatua da hiriguneko eraikinen %60ren jabe, eta horietatik %85 hutsik daude.

eta lurak erosi zituzten Nilo ibaiaren eskuineko bazter drainatuan. Suezeko kanalaren eta kotoi produkzioaren loraldia izan zen XIX. mendearen azken herena, eta Kairok Europa hegoaldeko merkataria erakarri zituen, batez ere greziarrak eta italiarrak. Al Shahedek uste du hiri europar gehienak baino kosmopolitagoa zela Egiptoko hiriburu, gutxiengo erlijiosoaren eskubideak aski zainduak zeudelako. Horren adierazgarri dira, besteak beste, *downtown*ean judu egiptoarrak eraiki zuten sinagoga handia edo Tiring eraikin ospetsuaren sabaia bedekatzeko duen Daviden izarra.

Gainbehera, halere, azkarregi etorri zitzaion Kairori. Monarkia bota eta militarrek boterea eskuratu ondotik, nazionalizazioaren eta konfiskatzeen garaia iritsi zen. Askok hitz egin da Gamal Abdel Naserren esku zorrotzaz eta atzerriarrek zioten izuaz. Hain zuzen, hari egozten zaio sistema aldaketak ekarri zuen ondorioz bostakoen: erdialdeak metropoliaren bihotza izateari utzi zion.



Iraganeko loraldi ekonomikoaren eta arkitektura aberatsaren ikur da Kairo hirigunea, baita azken hamarkadetako gizarte bazterkeriaren isla ere. Ezker-eskuin: Tiring eraikin ospetsua; Carlton hotelaren barrualdea; Grand Hotel; eta Sayd Abu Fatta, Yacoubian eraikineko zaindaria.

1960ko hamarkadan zehar, kanpotar gehienek Egipto utzi zuten eta klase ertaina kanpoaldeko hiri berrietan ezarri zen. Hala, militarrek eta haien familiak erdialdean gotortu ziren behin-behinean, armadak Egiptoko kasta boteretsuena izatea lortu arte. 1980tik aurrera haiek ere hirigunea utzi zuten eta orduraz geroztik agerikoa da eremuaren degradazioa.

Elitismorik ez

Hustasun horrek denboran geldirik utzi du Kairoko *downtowna*. Eraikin gehienek egoera tamalgarrria ikusita, erdigunea birmoldatu egin behar dela uste dute egiptoar askok. El Shaheden hitzetan, agintarien interes falta ikusita, herri ekimenak bakarrik eraldatu dezake ingurua. “Ezin gara itxaroten geratu eraikinak haien kabuz erori arte”, erantsi du. Erronka zaila da, ordea. Egiptokoa ez da ekonomia libre, militarrek ezarritako sistema paternalista zurruna baizik. Hiri plangintzaren alorrean agerikoa da negozioa: militarrek zementu produktzioa, eraikuntza materialak eta lurren jabetza monopolizatzen dute. Hitz gutxitan esanda: armadarentzat etekin gehiago sortzen du eraikin bat egiteak zaharra berritzeak baino. “Bikote batek hiri erdian etxe bat erostea erabakitzen badu, bankuek ez diote mailegurik

eskainiko. Alta, hiri sateliteetan bizi nahi izanez gero, erraztasun guztiak izango dituzte”, azaldu du El Shahedek.

Edonola, Ibrahim Abdel Naguib idazleak argi dauka dena ez dela diruaren hotsa. Haren aburuz, ezinbestekoa da aipatzea Egiptoko agintariek, militarrek, ondare arkitektonikoarekiko daukaten sentikortasun falta. Idazleak zera galdetzen dio bere buruari: “Azken 40 urteotan agintean egon diren presidenteeek inoiz irakurri al dute historiari, filosofiari edo

arteari buruzko libururik?”. Gauzak horrela, errealitatearen argazkia beltza da, baina gainbehera horrek ba omen du bere alde ona. “*Downtowngo* lurzoru ez da espekulazioan erori, beraz, ez da elitizazio prozesurik eman. Eremu osoa herritarrena da”. El Shaheden esanetan,

eremua oinarritik birsortzeko aukera aparta daukate.

Agintarien interes falta ikusita, herri ekimenak bakarrik eraldatu dezake ingurua. El Shaheden esanetan, eremua oinarritik birsortzeko aukera aparta daukate. “Ez dugu Parisen distira kopiatu nahi, eraikinei bizitza itzuli nahi diegu”

Porrot egin duen eredua

Horretarako, iraganeko hutsetatik ikasi behar da. Mohamed Abdel Dessouki arkitektura irakasleak dio Kairoko Alexandriaren eredua aztertu beharko lukeela egin behar ez dena jakiteko. Izan ere, Egiptoko lehen portua izandako hiri sinbolikoak gentrifikazio saiakera hutsala pairatu du. 2002an ireki zen Alexandriako liburutegi berria hirigunearen



metamorfosia bultzatzeko eredutzat saldu da nazioartean, hain zuzen, aktibitate kulturalaren bidez hiriko egoera sozio-ekonomiko larria berpizteko aukeratzat. Alta, zeharo kontrakoa da errealitatea. “Liburutegiaren inguruan luxuzko eremua sortu dute, baina herritarrak ez datoz bat espazio berri horrekin”, adierazi du Abdel Dessoukik.

Ondare kulturala babesteaz arduratzen den Safe Alex erakundea gidatzen du arkitekturen irakasleak. Haren aburuz, Hosni Mubarak-en ametsa izan zen liburutegi erraldoiak ez du lortu hainbeste aldarrikatutako *Bilbo efektua*. “Atzerriko inbertsioak handituko zirela eta turismoa erakarriko zutela esan zuten, baina Alexandriako herritarrak proiektu faraoniko horretatik kanpo utzi zituzten. Zentzurik ba al du halako liburutegi bat erakitzeak Egiptoko analfabetismo tasa handia gainditzeko neurriak hartzen ez badira?”. Eraikinak berak argi erakusten du kanpokoa duela nahiago, fatxadak Mediterraneoari

begiratu eta hiriari bizkarra ematen baitio. Liburutegi barrura sartuta ondorio garbia ateratzen da: ia hutsik dago.

Kairora itzuliz, ezinbestekoa dirudi espazio publikoaren eta herritarren arteko harremana ulertzea. “Erdigunea elite baten etxea izan zen XX. mendearen lehen erdian, baina talde horrek ez zuen Egiptoko gizartea ordeztu. Ingurua eraldatzeko beharraz hitz egitean argi izan behar dugu zein eredu jarraitu nahi dugun”, nabarmendu du El Shaheedek.

Tartean, erdialdeari sumatzen zaio berriz ere metropoliaren bihotza izateko desioa. Eta El Shaheden aburuz, argi pixka bat ikus daiteke zerumugan: “Azken bi urteetan armada-arenak ez diren etxe hutsen alokairu merkeak hazi dira”. *Downtownna* berpiztu nahi dutenen helburua sinplea da, baina asmo handikoa: “Ez dugu Parisen distirra kopiatu nahi, eraikinei bizitzita itzuli nahi diegu”. ■



Liburu azoka

Santurtzin, maiatzaren 16tik 25era Portuko etorbidean.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!



DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



EHUKO
IRAKASLEA,
EPAILEA

Jean McConville in memoriam: egia, justizia eta ordaintza

EZ NUEN Jean McConville ezagutu, noski. Orain arte ez dut bere izena ezagutu, ezta bere bizitzaren eta heriotzaren berri izan ere. Apirilaren 29an entzun dut izen hori lehen aldiz, Gerry Adams atxilotu dutenean.

Jean McConville 1971n alargundu zela jakin dut, hamar seme-alabaren ama zela eta pobrezia handian bizi zela. Ipar Irlandan gertatutako gatazka gogor hartan, Jeanek 37 urte zituela, IRAko kide batzuek jipoi ikaragarria eman zioten beldurtzeko asmoz, eta handik denbora gutxira –iturri batzuen arabera, hurrengo egunean–, 1972ko abenduan, bere etxetik bahitu bere seme-alaben aurrean, larriki torturatu eta tiro batez hil zuten. Ez zen gehiago jakin 1999ra arte, IRAk hilketa onartu zuenean, Ostiral Santuko Akordioak sinatu eta handik urtebetera. Gero, 2003an, gorpua azaldu zen, ibiltari batek aurkiturik, Belfastetik 80 kilometrora, hondartza batean ehortzita. Bere seme-alabek bizitza oso gogorak izan dituzte, eta orain egia eta justizia eskatzen dituzte.

Ez dakit noraino jakin nahi dugun egia eta noraino egin nahi dugun justizia. Oraindik nire zalantzak dauzkat. Ez dakit ere, noraino izango den “praktikoa”, Ipar Irlandan Gerry Adamsena ezagutu eta gero egin diren hausnarketak kontuan hartzen badituzte

Hau guztia jakiterakoan ezinbestekoa egin zait gurera etortzera. Ez ditut ezagutzen Ipar Irlandako giltzarriak. Beraz, ez dakit hau guztia Gerry Adamsen aurkako kanpaina politiko maltzurra den edota zergatik azaldu den garai honetan. Bere etxean bahitu zuten ere, ez zait gehiegi interesatzen. Hau da, berdin zait gertaera honek nori egiten dion kalte edo mesede. Niri interesatzen zaidana da erabakitzea, denon artean, honek zer suposatzen duen: iraganeko mamuak itzultzea ala egia eta justizia gauzatzea.

Gure erronkei begira, argi dago –horrela ulertu dut nik, behintzat–, bake prozesu eraginkorrak aurrera egin ahal izateko elkarbizitza sendotu behar da. Eta, aldi berean, elkarbizitza ez dagoela errotzerik egia, justizia eta ordaintza bermatzen ez badira.

Horrela onartu zen orain urtebete, iazko maiatzean, Foro Sozialak aurkeztu zituen Bake Prozesurako Gomendioetan. Hauen artean, labur bilduz, hauek daude: erakundeek egia eta adiskidetzarako mekanismoa baliabide eraginkor modura bultzatu behar dute. Gure “kontaketa” egiterakoan era ezberdinak egongo diren arren, sektore sozial eta politiko guztietan autokritika eta egindako akats larriak aintzatesteko jardun zintzoa bultzatu behar dira, biktima guztiek daukaten egia, justizia eta ordaintza eskubideak kontuan harturik.

Ez dakit hau guztia nola gauzatuko den. Ez dakit noraino jakin nahi dugun egia eta noraino egin nahi dugun justizia. Oraindik nire zalantzak dauzkat. Ez dakit ere, noraino izango den “praktikoa”, Ipar Irlandan Gerry Adamsena ezagutu eta gero egin diren hausnarketak kontuan hartzen badituzte.

Nik errealtate bat ezagutzen dut, amaituta –horrela dirudi, zoritxarrez–, boro-bilduta eta –inozoak!– hainbat tokitan amestuta. Espainiako errealtateaz ari naiz, “trantsizio politikoaz”, non, egia, justizia eta ordaintzaren ordean, “amnesia” nagusitu zen.

Badakit denbora asko igaro dela Jean McConville hil zutenetik eta egoera soziala eta pertsonak sakonki aldatu direla. Ez dut ezagutzen hango Zigor Zuzenbidea; ez dakit delituen preskripzioa edo indultuak nola dauden araututa. Bestalde, badakit justiziaren erantzuna egokitu behar zaiola garai berriari. Baina, zer egingo dugu egia-rekin? Uztargarriak dira, nire iritziz, egia, justizia, aitortza eta etorkizunerako nahi dugun elkarbizitza. Gure gizarteak baditu horretarako tresnak –indultua tartean–, baina horretaz beste batean hausnartuko dut. ■





Jakes Bortairu

BATERA PLATAFORMAKO KIDEA ♦



DANI BLANCO

Prefetaren etxeko lanak

DUELA ZENBAIT HILABETE, herri hauteskundeetako garaia hasi aitzin, prefetak bi lan hartu zituen bere gain: alde batetik, azken 20 urteetako statu quoa apurtu ondoren ikastolak diru publikoz laguntzeari buruzko zirkularra idatzi, eta bestalde, Ipar Euskal Herrirako gobernantza hautabide batzuk proposatu, frantses gobernuak Lurralde Kolektibitatearen aukera baztertu ondoren. Geroztik hauteskundeek ekarri dituzte sozialistei zafraldia eta abertzaleen gorakada nabarmena. Ondorioz, Manuel Valls lehen ministroa izendatua izan da eta honek gobernu berria osatu du.

Lehen etxeko lana atera berri du prefetak, eta legedi guztia arakatuz gero baieztatu du (hau scoop hau!) ikastola berriak ezin direla eraiki diru publikoarekin. Lokal zaharrak edota “prefabrikatuak” soilik alokatzzen ahal zaizkie! Legediaren barnean “aterabide” teknikoak proposatzen saiatu bada ere, haserrea baizik ez du piztu prefetak, oroz gainetik irudikatu baitu mundu osoari askatasun, berdintasun eta eskubideez irakasgaiak eman nahi dituen Frantziaren partetik euskarak merezi duen estimua

Haserrea baizik ez du piztu prefetak, oroz gainetik irudikatu baitu mundu osoari askatasun, berdintasun eta eskubideez irakasgaiak eman nahi dituen Frantziaren partetik euskarak merezi duen estimua

politika bat plantan ezartzearekin euskarari ezagupen eta bizitza publikoan leku bat aitortuko dizkiona, haren ikasketa, erabilera eta herritarren artean promozioa bultzatuz”.

Lurralde Kolektibitatearekiko atxikimendua dela eta, nabaria da hauteskundeen biharamunean herri handienetan gertatu aldaketa: populazioaren gehien-go zabala ordezkatzzen duten auza-pezak alde dira gaur egun eta kontrako jarrera aktiboena zuten sektore sozialistak guztiz ahulduak gelditu dira. Bizkitartean, Vallsek bere aurkezpen diskurtsoan frantses instituzioen berrantolaketari buruzko eztabaida ireki du berriz. Bi urte barne sozialisten hirugarren proiektua da eta aldi honetan aldaketa sakonak proposatzen ditu: eskualdeak batu, departamenduetako asanbladak desegin, konpetentzien banaketa zorrotza... Eztabaida luze eta beroak aurreikus daitezke Frantzia osoan, baina dudarik ez da biharko antolaka

instituzionalari begira, azken urteetan egindako lanari esker Ipar Euskal Herriko jendartea prestatuenetariko bat dela politikoki nahiz gogoetaren aldetik. Ikusteko da prefetaren bigarren etxeko lanak jendartea asetu, zatitu ala mobilizatuko ote duen. ■



DANI BLANCO



**Amets
Arzallus**



BERTSOLARIA

Eibar

EIBAR ertzetik pasatzean, Ermua ikustean, edo inoiz Sorluzera iritsitakoan, begiratu ito bat bota izan diet beti herriei, eta pentsatu eguzkiak okerka sartu beharko duela han, argitzekotan. Ez dakit bi irribarre herrenka kabitzen diren kalean. Baina bi errezildar ba omen zihoazen Pariserako trenean, paisaiaren zabalari begira, okotzak leihoan, harriturik, eta batek besteari esan: “Hi, Plaentxi egin zianak ez zian jakingo hau hemen zegoanik!”.

Aitari umetan entzun nion errezildarrak ostikoketan onak zirela, futbole

eta bestean. Ez dakit eibartarrak beste horretan zer moduzkoak diren, baina futbole

Xoxak ongi kontaturik, eta paisaiaren itoa joko estilo bihurturik, balentriaren zorian dira. Jekerik eta txekerik gabe. Estadio faraonikorik gabe. Bestela. Armak bizikleta bihurtu zituen herriak bere berdegune apurrean lanari ohore egiten segitzen du. Denak errezildarrak ez baldin badira ere hartuko nuke poz ederra lortuko balute. ■





Joxerra Aizpurua

♦ INDUSTRIA INGENIARIA

Hipokrisia

ORAIN GUTXI Nazio Batuen Era-kundeak (NBE) sustatutako txosten batek adierazi zuen berotegi efektuaren eraginez itsas maila hazten ari dela, zenbait lekutako ekosistemak aldatzen ari direla, lur txiroak gero eta gehiago direla, itsasoetako arrainen kantitatea beherantz doala eta beste hainbeste egoera kezagarri biziko ditugula. Halaber, itxaropenerako atea zabalik utzi ziren, betiere karbono dioxidoaren isurketa neurri garrantzitsu batean eteten bada.

Bitartean, gauza jakina da krisi ekonomikoaren eraginez munduko estatu aberatseneko joan den hamarkadan isuri zuten gas karbonikoaren kantitatea baino gutxiago isurtzen ari direla orain; Europan eta AEBetan nabari da beherantzko joera, baina arrazoiak ez dira berberak herrialde guztietan, gehienetan krisia izan baita arrazoiak, eta oso gutxitan ekonomi ereduaren aldaketa.

Oraintsu irakurri dugu Espainiako Gobernuak AHTren Bergarako korapilo garrantzitsuaren lehen zatia lizitatuko duela eta Eusko Jaurlaritza kexu agertu dela gehiago itxaron zuelako. Batek hauteskundeak medio aterako zuen lizitazioa eta besteak begien bistan hiltzen ari zaion lan faraonikoaren aurreko inpotentzia adieraziko zuen.

Aipatutako adibide hau krisitik ateratzeko aurkezten ari zaigun garapen ereduaren isla baino ez da. Europako herrialde askotako eta batez ere Espainiako autobide, aireportu, AHT eta tren normalaren linea gehienak zenbaki gorritan dauden bitartean porlana da berriro krisitik aterako gaituen giltza magikoa. AHTrako tramua asko, Pasaiko kanpo-portua edota

Hondarribiko aireportua zabal-tzea, eta nola ez, eraikuntza sektorea berriro gogotik indartzea dira hazteko errezetak.

2007 eta 2008 urteetan krisia hasi zenean batek baino gehiagok aipatu zuen aurreko eredu ekonomikoa amaitu zela eta ekonomia sistema berri baten atarian ginela; orain aldiz, ekonomia indize-kontua besterik ez da, indizeak hobetu egin behar dira eta azkar gainera. Horretarako enpresa multinazionalen errezetak izan daitezke berehalako emaitzak eman ditzaketena, porlanean eta azpiegitura erraldoietan oinarrituta.

*Espainiako
Gobernuak AHTren
Bergarako korapilo
garrantzitsuaren
lehen zatia lizitatuko
du eta Eusko
Jaurlaritza kexu
agertu da gehiago
itxaron zuelako*

Berotegi efektua handituko dela baina langabezia txikitzen bada ordaindu daitekeen prezioa dela esaten ari zaizkigu, eta bestalde, hemendik 10 edo 20 urtera izango dugula gaiari heltzeko aukera.

Oso gutxi dira hazkundera birziklapenaren, teknologiaren eta etxeen, azpiegituren eta enpresen berrerabileran planteatzen dutenak, presaka atera behar baita krisitik eta horretarako gauzak erdi-purdika egitea zilegi baita.

Ez dugu ezer ikasi, ezta ikasi nahi ere, eta gainera, ziurren, Lurrak aukera berriak emango dizkigu. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Gure esku dago



XDZ

Miren Amuriza Plaza

♦

Doinua: Kantuz sortu naiz eta.

Pultseraz apaindua,
zimurdun azala,
dardartia, zikina,
txikia, zabala,
azkazal gorriduna,
beltzarana, argala...
Aurtengo maiatzean
ehunka esku hala
ari dira zabaltzen;
loreak bezala.

Zabaltzen ari diren
esku-ahurretan,
lau marra bateratzen
dira "M" letran:
"M" Munduari so,
"M" Minen bueltan,
"M" Mugarik ez da,
"M" Metroetan...
Zein hitz daramazue
zuen eskuetan?

Kateatuko gara
dozenaka, ehunka
"M" Durangon hasi
eta Iruñan buka,
esaldian bakoitzak
bere hitza dauka,
bakarka jarraitzeak
bide motza du ta,
ea nora heltzen garen
eskutik helduta! ■



«Ene kezka transmisioa da, aktorea sortzaile bilakatzea»

(Kalifornia, 1959). Baxenabartarra. *Euskal kultura?* saioari *Libertitzeaz* (Pamiela) saio mardulean eman dio segida. Euskal dantzari ei eskainia da liburua. Berau endelegatzeko hobe dantzari izatea edo dantzaren mundua ezagutzea. Saiogilea dantzaria da. Dantzaria izan ezik, antzerkigilea. Antton Lukuk ez du antzerkia bere egiten, berau dantzaren baitan eman gabe. Zer ote antzerkia baina? Zer ulertzen dugu antzerkiaz?

| MIKEL ASURMENDI |
Argazkiak: Dani Blanco

DONIBANE GARAZIKO lizeo publikoaren euskal antzerki tailerrak 20 urte bete ditu. 200 ikasle inguru ari izan dira aktore lanetan, 30 antzerki obra landu dituzte dagoeneko. *Libertitzeaz* saioaren egile Antton Luku dute irakasle: “Urte guziz behar da proiektu berri bat. Urtea abiatzen duzu eta hurrengo urteari begira pentsatzen ari zara engoitik. Taldea urtetik urtera aldatzen da, ikasturte hastapeanean multzo berria duzu eta hasi behar duzu lan berria lantzen. Euskal antzerkia, antzerki herrikoia, biziki anitza da formaz. Ezti-ezti ari gara, ditugun jendeekin egiten dugu. Gure antzerkiak irakaskuntza eta curriculum hunkitzen ditu, baita erranahi kolektiboa ere. *Libertitzeaz* saioan hori esplikatzen dut”.

***Euskal kultura?* saioaren ondotik heldu da *Libertitzeaz* saioa. Nondik nora? Zergatik?**

Saio hura *Fauxto* toberari lotua da. Tobera zikloaren bukaera izan zen, nolabait. Gaia Iparraldeko euskaltzaileen munduan inposatu zen, eman beharreko gaia zen. *Euskal kultura?* idatzi nuenean entzuten ziren kritikek ez zuten funtsik, eta pentsatu nuen gaia zapartarazi behar zela. Zapartaraztea edo katarsi hori da toberaren funtsa, eta saio hura idaztea ere bai. Orain, *Libertitzeaz* saioan antzerkira iraganbidea erakutsi nahi izan dut, taula gaineko lana nola pasatzen den: idatziz erraten dudana formaz nola eman nahi dudana erakutsi. Translazio lana azaldu dut orain. *Euskal kultura?* oinarria izan zen eta *Libertitzeaz* saioan ikuspegiak ageri dituzu. Jokalarien arteko ikuspegi kon-

fliktiboak baldin badaude sortzen dira pertsonaiak, batek gauza bat defendatzen du eta besteak beste bat. Toberaren funtsa hori da, horrek baldintzatzen du antzerki ona. Konfliktua ikusi behar da, batek bestearen aurka dituen indarrak. Pertsonaiak defendatzeko ahalak behar ditu aktoreak. Pertsonaia bakoitzari bere xantza eman behar zaio, bestenaz, parodian edo kritika hutsean gelditzen gara.

Zeri erraten diogu euskal kultura?

Idazle bezala baldintzatzen nauena, ene sentsibilitatea pizten duena, libertitzea da. Eneztat, konparazione, *Libertimenduan* [antzerki molde bat] goizetan, musikariak jiten direlarik, gure arteko solasak eta adiskidantza, plazer hori ere da *Libertimendua*. Esplikatzeko ez diren une horiek parte handia dute gure kulturarekiko maitasunean. Kultura eta euskara memento horretan bizi dira.

Euskal dantzari ei eskaini diezu liburua.

Bai, baina ez da poz bat emateko. Zenbait belaunaldi-dantzariri idatzi

diet ohar daitezen gazteria dantzan ari dela, ea hortik abiatuz lantzen dugun gure kultura. Dantza, antzerkia edota bertsolaritza kultura horretan sartzen ditut. Jendeetarik abiatu behar da: jendeek zer maite duten? Zein jendeek? Euskaldunek? Aspaldikoek? Berriki gurera jin direnek? Dantzaren inguruan bada kontsentsua. Taldeak beteak dira. Urbeltzi omenaldia egin zitzaionean, Baionan, antzokia bete zen. Oraingo gazteak dantzan ari dira. Problema da euskal dantza, euskal dan-

“Problema da euskal dantza, euskal dantza ote den. Trabesa hor da, ea dantza mundu hori egoten den euskaldun edo ez”



tza ote den. Trabesa hor da, ea dantza mundu hori egoten den euskaldun edo ez. Funtsean hori ez da jinen administrazioaren egituretatik, politikatik. Adibidez, Europako Kontseiluak Karta Soziala delakoa egina du, baina gu ez gaitu gerizatuko.

Hogei urtez dantza tailerrean ari izan naiz lanean, gazteekin, dantzari diren antzerkilariekin; herriko dantza mugitu behar badugu jendeek berentzat har dezaten, transmisio metodoak aldatu behar ditugu. Era berean, dantzariek antzerkilarien moldeak poxi bat inportatu behar dituzte. Ene kezka transmisioa da, nola transmititzen den aktorea —dantzaria barnean ezartzen dut— sortzaile bilaka dadin.

“Belokeko Martxel Etxandi apezaren anaia artzainak harrespila edo cromlech delakoan dantzaren zirkulua ikusten du. Oteizak eta biek erraten badute gauza bera memento berean, ez da kasualitatea”.

Bilatze horretan bidaideak dituzu. Neolitikotik hasita, Oteiza. Antzerki adituak, bestalde.

Kanpoko antzerkigile adituak [andana aipatu du; Grotowsky besteak beste] irakurri behar dituzu, eta aldi berean euskaldunak, Urbeltz edota Oteiza, konparazione. Horien aburuak eta iritzi herrikoia konfrontatzen badituzu, egia zer den eta zer ez den kausitu dezakezu. Horrek balio du. Oteiza edota arte modernoa maite ditugu edo ez. Batzuek Guggenheimek ez duela balio pentsatuko dute eta beste batzuek sorkuntza sublimatzen duela. Horretan ez naiz sartuko, ez bainaiz espezialista. Alta, Belokeko Martxel Etxandi apezaren anaia, artzainak, [Okabeko] harrespila edo cromlech delakoan dantzaren zirkulua ikusten duela erran dezaket. Oteizak eta biek memento berean erraten badute gauza bera, ez da kasualitatea.

Ene antzerki metodora jinez, ezin dut antzerkia egin teoriarekin, egiten dut metaforarekin, kontsigna aski motz, zehatz eta potente emanez. Taula gainean zarelarik, bizi duzun egunaren arabera, horrek zaitu babesten erortzetik. Beraz, delako harrespila hori gure artera ekarri behar da. Pierre Duny-Pétrék erraten du espazioa ekarri behar dela Donibanera, hots, bortua. Erran nahi baita, unibertso hori zirkulu tipi batean behar dugula irakurri. Memento horretan harrespilaren irudia izugarri indartsua da eta funtzionatzen du. Inportantea ez da polit izan dadin, aldiz, mintzatzen ari garelarik martxatzen bada, aitzina.

Liburuan ageri denez, egile denak ez dituzu gogaide: Nicole Lougarot edota Mixel Etxekopar, konparazione. Badira gehiago ere. Polemika gustatzen zaizu, debatea naski. Errespetuz betiere.

Etxekopar txirularia, Gat, Bedaxagar eta horien mundutik atera da, errespetu osoa diot. Gero badago liburu bat... [*Bobémiens*. Nicole Lougarot; Gatzuzain], horrek hedatzen du ikuspegi bat egia ez dena. Frantsesez idatzi du, nik hitzez hitz zitatzan dut, horrela dio: “Maskarada ikuskizun arrazista da, tsiganoez trufatzen da”. Maskarada ez da hori. Maskaradak ezkerretik eta eskuinetik hartu du, ados. Adibidez, Nafarroako jota Andaluziatik heldu dela? Hala da eta sinesten dut. Problema da nola tratatua den. Metafora ez da hori enetako?

Gurea, politika nahiz kultura, edo biak batean, *Commedia dell’Arten* agertzen dira, edota bere baitan ulertu behar dira, naski.

Badira kointzidentziak. Georges Hérellek —Baionan irakasle izana— Pastoralaz aztertu zuen eta Lyoneko inauteriekin konparatu, *Commedia dell’Artere*kin. Gathua adibidez



“Ez da zirtzilik nahi. Iraganean ere, bai *xuriei* bai *gorriei*, arrazoi ezberdinengatik, ongi heldu zaie zirtzilak ez agertzea. Memento batez horien boza ez da plazan entzun nahi izan. Bakoitzak baditu bere arrazoiak, baina jendartea bere konfliktoen gainean oinarritua dela kontsideratzen badugu, zirtzilak beharrezko zaizkigu”.

Arlekinoren metafora da. Gathuzainak beste inauterietan duen funtzio bera du. Alabaina, gauza batzuek ez dute jada berdin funtzionatzen, ez baitira martxan gehiago. Urbeltzek erraten du Zamaltzaina dela Larrepota [Larrapetit edo langosta]. Baina orain joaten zara Zuberora eta dantzatzen dutena zaldia da. Ahantzi dute haren funtzioa, beharbada aldatu delako, beraientzat hori Larrepota izateak ez duelako inportantziarik. Kontua da zein metodorekin fabrikatzen dugun Maskarada edo dena delakoa. Eman dezagun, oraingo Kabalkadari falta zaio-la musika zerbait? Bada, Balkanetatik ekar baleza falta den metxa hori, dantzariek maite duten kar hori, ni ados. Arazorik ez. Enetzat arazoa da zer eta norekin nahi dugu hori eman edo jokatu. Jendartea egitura dezan balio badu eta heziketa batean barnean, arras ontsa. Politika biziki inportantea da kultura baldintzatzen baitu. Hori da ene kezka.

Zergatik desagertu dira zirtzilak inauterietatik?

Ez da zirtzilik nahi. Iraganean ere, bai *xuriei* bai *gorriei*, arrazoi ezberdinengatik, ongi heldu zaie zirtzilak ez agertzea. Memento batez horien boza ez da plazan entzun nahi izan. Bakoitzak baditu bere arrazoiak, baina jendartea bere konfliktoen gainean oinarritua dela kontsideratzen badugu, zirtzilak beharrezko

“Kulturak beharra galtzen duelarik marfilezko dorre bihurtzen da”

zaizkigu. Nik ez dut jenio ukaldirik jo hori aldarrikatzean. Jendartean bizi naiz, antzerkilari gisa eskaera hori sentitu dut. Eta ez da tronpatu behar, bada jende bat heldu ohi dena Libertimendura eta beste jende bat ez. Nahiago dute dantza hutsa, biziki ontsa heldu zaie, politagoa zaie. Libertimendua —euskaraz irauten badu—, eztabaida egitekoa, gutizia hori, ez zaie ontsa heltzen. Zernahi gisaz, bada nonbait erresistentzia hori plazara ekartzeko, politikoki zuzena ez dena. Adibidez, azken bozen ondotik Tobera egiteko gai izugarria dago Baionan. Alta, euskaldunok ez gara gai hori plazara ekartzeko, eta literatura, antzerkia edota dantza aitzinarazteko.

Zirtzilak, Bolantak eta Santibetek zer diren geureganatu gabe, euskal kulturarik —dantza, antzerkia, bertsolaritza...— izan ote?

Zirtzilaren funtzioa ilusioa piztekoa da, eder egitea dantzaren barnean. Funtzio hitza gutxiago entzuten da egun dantzan, antzerkian baino. Horregatik da erranahia inportantea, ohartzeko gauza batzuk sortu behar direla, hots, horrendako zen, baina orain ez du deus erran nahi. Egun estetizismoa egin daiteke gauza guztietan. Bestalde, badira pertsonaia batzuek irauten dutenak kultura sartuak direlarik. Adibidez, Kabanak ez du funtziorik gehiago, baina Kabana pertsonaia gisa denek ulertzen dute Zuberoan, oraino funtzionatzen du. Dantzak, artedramak, badu funtzioa, alta, erritualetik edo herri dantzatik ikuskizunera pasa gara, eta diferentzia ez da profesionala edo amateurra izatea, amateurrek egin dezakete. Hautua da gakoa. Zaharrentzat ez da teoriarik izan, ezina baizik. Enpirismoa aipatzen dut liburuan, ezinak une batez kontzientzia arrazaten duela. Zaharrek dantzari ona eta elektari ona bereizten dituzte, dekonstrukzioa egiten dute, kubistek bezala. Ezinez egiten dute, ez dute besterik egiten ahal. Arrasmatzen dute funtzionatzen duen sistema, rol ezberdinak partekatuz, dantzan espezializatuz, zirtzila espezializatuz funtsean. Gero, zirtzila isildu behar delarik isiltzen da eta sinbolikoki dantzaz erraten da. Oreak hori kausitua delarik ageri da transmisioa. Guk dantza ikuskizun estetikoa bihurtu nahi dugu forma

hutsa atxikiz. Alta, beharra eta ezina galtzeko arriskua dago. Kulturak beharra galtzen duelarik marfilezko dorre bihurtzen da. Artistak daude, gauza politak... baina.

Parte-hartzea, demokrazia nolabait esanda, jokoan dago.

Piarres Larzabal horrela ulertzen dut. Bere antzerkiak ontsa irakurtzen baditugu badaude zozoak eta dohaindunak, baina sekula ez du inor baztertu. Denek badute hitza. Ez dakit hori demokrazia den edo populismoa, hasteko integrazioa da. Larzabalek ez du bazterketa soportatzen, mentalitate hori salatzen du nonbait. Niri, populista bada, zaharkitua bada, hobeki heldu zait. Bizitzako konfliktuak ekartzen ditu: "Horiek boterea dute, baina gu ere bizirik gaude". Egungo sisteman badago holakorik, bazterketa jasanezina da garai honetan. Jendeek lekuri ez dute sisteman, baina behar dute xume-xume bozkatzera joan. Ez badute parte-hartzen errua botatzen zaie. Bozkatzera joan behar dugu kontzientzia ona emateko, demokraziak funtzionatzen duela erakusteko. Alabaina, dantzaren eta antzerkiaren bidez hori nola salatu edo adierazi, nihaurek ez dakit.

Liburuaren idazketaz arranguratua sumatzen zaitut nolabait.

Arrangura handia dut formaren inguruan, badakit zer ez nuen egin nahi. *Tobera definizio baten bila* testuan ageri da hori. Beharretarik abiatu nintzen: zer da falta oraingo kulturaren transmisioan? Guk hartu dugun horretan. Dantza garaikideak ikusten ditudalarik, Galtxetabururen edo Battita Lazgoitiren bozak falta zaizkit. Euskaraz egin den ingurugiroa nonbait. Haiek euskaraz ontsa mintzo ziren, sustut euskara hark bazuen musika, bazuen

arraileria. Eta bazuten hutsean uztea ere, ez zuten kontsideratzen beren burua liburutegi bat bezala. Bazen ezintasuna, plazera, eta bazen bortitza ere... pikoak eta ateraldiak. Gure belaunaldian horiek preso daude. Munta ezazu antzerki bat: zahar bat behar duzu, baina zahar hori ezin du gazte batek egin. Egin dezake, baina doinu baxu baxu da, eskarniatua. Izate hori jokatzeko hoberik ez dago adin horretako jokalaririk bat izatea



baino. Nik esplikatzeko dut nola egin behar den. Entseatzeko dut hori euskaraz ematen, bizi dudana horretan txertatzen gaia sailheste gabe. Kostunbrismo delakoa egiten ahal da. Alabaina, iragana dela kontsideratzen badugu eta nahi badugu orainean funtziona dezan, hori beste istorio bat da. Dena den, hemen eta orain, espanturik gabe diot, zinez, oraino posible da egile izatea. Ene trabe-sa edo apustua, ene ametsa, giro hori dantza ekitaldi baten inguruan sortzea da. Ez dago egina eta hori egin nahi nuke! ■



Txuleta

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

LEIOAKO UMORE AZOKA 2014

Estreinalditarako gune aproposa

Leioako kale arteen azoka erraldoia 15. ediziora heldu da aurtengoan. Maiatzaren 15etik 18ra bitarte, biztanle ezohikoek hartuko dituzte hiriko kaleak: klownek, dantzariak, antzezleak, bihurrikariak, pailazoen, arte hauetako gainerako sortzaileak. Ehundik gora errepresentazio eskainiko dituzte, bazter ugaritatik etorrira. 43 konpainia batuko dira. Kultur Leioak antolatutako ekimena da.

| MYRIAM GARZIA |

ERABATEKO estreinaldiak 18 izango dira, eta horietarik zortzi euskal antzerki taldeen eskutik. Baliabide artistikoak anitzak dira Leioan: dantza, antzerkia, antzerki mugikorra, keinu bidezkoa, zirkoa, mikroteatroa, bihurrikatzea, maskara antzerkia, musika uztartzen duten ikuskizunak, klownak, dantza bertikala, dantza hiritarra, instalazioak eta jokoak, zirko garaikidea, performancea, gorputz perkusioa edota diziplina anitzeko ikuskizunak.

Ekintza paraleloak ere antolatu dira gainera. Besteak beste, Toti Toronell pailazo katalanaren marrazkiak eta poema ikusgarriak biltzen dituen *Totidadeak, pailazo baten zirriborroak* erakusketa eta Algortako Bertso Eskolak antolatutako Bertso-klowneria ekimena. Bestetik, Kultur Leioako eraikinean 15 urteetako kartelak eta argazkiak proiektatuko dira.

Leioako kaleetan aurkituko dugun taldeetako bat Hortzmuga dugu. Aurten, konpainiak 25 urte bete dituela eta, *Nola* antzezlanarekin ondu dute. Kale antzerkirako sortu zen taldea, baina aretoetan jardun du bolada luzean eta obra esanguratsuak taularatu dituzte. Orain jatorrira itzuli dira: “Ez gara baina, sekula kaletik aldentu”, diosku Arantza Goikoetxea Hortzmugako zuzendariak.

Nola antzezlanean, testu barik hurbilduko dira ikusleengana (nagusiki haurrak). Sortutako soinu mundua eta ikusiko dutena izango dira komunikazio bidea. “Sorkuntza prozesu luze batean murgildu ginen eta laborategian emandako ordu luzeak zer eta nola kontatu definitzera eramane gaituzte” dio zuzendariak. “Jaiotzen garen momentutik izaki apartak garela aldarrikatzera eramane gaituen beharrezko da *Nola*. Gizakion arteko

aldeez ari da, norbanakoen barne munduez”. Akzioa bi espaziotan garatuko da, kanpoan eta barruan, estruktura zarratu bat tarteko. Hala, 20 ikusle baino ez dira izango 20-25 minutuko pase bakoitzean. Lan berri honek Poloniara eramango ditu udan, Gdansk hirira hain zuzen, hango Feta kale antzerki jaialdian parte hartzera.

Kale antzerkiko taldeen egoeraz ere hitz egin digu Arantza Goikoetxea: “Osasun pattala dugula esan dezakegu, baina betiko kontua da hori. Gero eta eskaintza handiagoa dago, hiltzeko jaiotzen diren konpainiak, edo betiko konpainiak, egoerari aurre egin ezin eta zarratu behar dutenak. Euskal kulturaren identitate zati bat galtzen da konpainia batek ixten duen momentuan. Atzetik datozen belaunaldiak ez dute bide erraza”.



Gasteizko Kolektibo Monstrenko taldearen *Althra Silex* ikuskaria.

Kalea, kritika sozialerako espazio egokia

LEIOAKO UMORE AZOKAREN harira, Frantziako Generik Vapeur taldeko gidoilari eta zuzendari den Pierre Berthelot izan zen gure artean, eta *Kalerako Idazten* ikastaroa eman zuen. Berthelotek 40 urte daramatza kale antzerkian, bere belaunaldiko antzezle gazteek sortu baitzuten kale antzerki berria. Antzerkia antzokitik ateratzeko lehen saioak izan ziren, eta kalea gure egin nahi genuen” gogoratu du Berthelotek. “Kanpoan zein giro dagoen ikusteko egiten dut kale antzerkia”, dio, baina giro metereologikoa ez ezik, “giro soziala eta politikoa ere ikusteko, funtsezkoak baitira gure lanean. Kale antzerkia, niretzat, arte totala da”.

Antzerkia aretotik ateratzea izan du beti xede. “Antzokia antzerkira-ko tokirik egokiena bada ere, kalea da gure eremu naturala. Sortzailea beharrezkoa du gizarteak, dauden arazoak seinaltatzeko orduan. Ingu-ruaz eta hiriaz hitz egiteko bestelako modu bat da”.

Alemania, Polonia, Italia, Txile... Munduan barrena ibili dira Generik Vapeurreko antzezleak. Beren muntaia erraldoietan ehundik gora lagunek parte har dezakete, horregatik, askotan tokian tokiko antzezle amateurekin egiten dute lan.

Ekintza publikotzat du kale antzerkia Berthelotek, “azken finean, antzerkia haserretik eta borrokatik ere sor baitaiteke. Zeure



burua askatzeko ere sortzen duzu, nolabait”. Hain zuzen, beren muntaia aski probokatzailerak dira. Publikoaren eguneroko eszenatikian jardutea gustatzen zaio Bertheloti: “Antzerkira inoiz joaten ez den jendea topatzen baita. Antzerkiarekiko zaletasuna sortzen dugu kalera ateratzen garen bakoitzean”.

Egoerak bultzatuta, Leioako Umore Azokak eta Bilboko Kalealdi jaialdiak bat egin eta Artekale elkarte eratu zuten 2004an, sektorearen duintasuna eta ezagupenaren alde egiteko.

Aretotik plazara jauzia egin duen beste euskal konpainietako bat Kukai dantza taldea dugu. *Gelajauziak* dugu Kukairen lan berriena, dantza tradizionala eta garakidea batzen dituen. Umore Azokan estreinatuko da.

Kataluniako Cesc Gelabert eta Kukai taldeko Jon Maya koreografoek sortu dute *Gelajauziak*. “Proiektuaren abiapuntutik, kale ikuskizun gisa planteatu nahi izan dugu eta honek asko markatzen du ikuskizunaren forma ere” diosku Jon Mayak. “Euskal herri-dantza zaharretan oinarritu gara, horren inguruan gogoeta egiteko. Hasieran, Gipuzkoako dantza zaharrak eta dantza jauziak izan zituen abiapuntu, baina gerora, jotaren inguruan egin dugu lan. Bere balio sozialean eta sinbolikoetan sakondu dugunez, garrantzia eman diogu dantza horiek normalki izan duten eremu naturalari, herriko plazari”.

Xabier Erkizia eta Aikho folk musika taldeko Sabin Bikandi eta Patxi Labordaren laguntza izan dute Kukaiko dantzariak. “Maisu handiak dira. Dantzan bezala, musikak ere oinarrian ditu tresna tradizionalak, baina tratamendua oso berezia da” dio Mayak. Bestalde, Nestor Basterretxearen Akelarre eskultura eta berak diseinatutako beste pare bat pieza ere ikuskariaren parte izango dira.

Gu bezalako tipo bi

Kale antzerkiak ispilu funtzioa izan dezake batzuetan. Eguneroko paisaia bi tipo ageri dira, bi gizaki primitibo, gure garai bizkorrotan seko harrituta. Hauxe da Gasteizko



**Kukai taldeak
Gelajauziak obra
eramango du
Leioara.**

Kolektibo Monstrenko taldeak ondu duen lan berriaren abiapuntua. Leioan estreinatuko dute *Albtra Silex*. Andrés Berazes eta Javi Fernandez antzezleek azaldu dutenez, publiko-arekiko harreman zuzena bilatzen du ikuskaririk. “Kalea gauza bizia da, errealitateak ez du ia fikziorik behar. Protagonista eta era berean ikusle izaten saiatzen gara. Akzio eta erreakzio truke honetan dago komunikatzeko asmoa. Dibertigarria eta alaia izan daitekeelakoan gaude. Zonalde eta ordutegi komertzialetan ateratzen saiatzen gara, kalea espazio publiko, espazio pribatu eta kontsumo espazio lez ulertzen dugulako” diote.

Publikoarekiko harreman zuzenak beldurtzen ote dituen galdetu diegu Berazes eta Fernandezi: “Errespetua ematen du. Kalea, tribu zibilizatuen paisaia da, eta askotan izan daiteke arrotz. Adi egotea eskatzen du, alde basatirik ere badu. Kaleko antzerkia ere horrelakoa da”. ■





Helduen Literatura | POESIA

Poemak

Georg Trakl

Itzultzailea: Anton Garikano.
Susa, 2014

Atea ireki zuen hura

NOR IZAN ZEN hain gazte hil zen erromantiko hura, Georg Trakl, hanka bat jadanik espresionismoan zeukana, deskripzioaren jeinua?: “Gaixoak garrasika ospitalean./ Gauak urdinxka astintzen ditu lumak./ Dirdiratsu ekin dio bat-batean/ Teilatuan behera euriak”. Mugako irudiekin eraikitako literatura muga-mugakoa da hau. Iluntzea, dementzia, udazkena eta natura erromantikoa nahasten dira ideia esperimentalagoekin, asmatzeke zegoen zerbaitekin. Beñat Sarasolak hitzaurrean azpimarratzen duen gisan, “garaiko beste hainbat artistaren lanaren antzera, Traklen poesia, helarazten duen ezinegonean, gertakariei aurreratu zitzaieiela ematen du. 1914. urtean hil zen Trakl, hurrengo urte eta hamarkadetan etorriko ziren zorigaitzen atarian”. Iraultza estetiko baten atea ireki zutenetakoa izan zen beraz. Literatura alemaniarrean berak egin zien bide Bertolt Brecht, Paul Celan eta enparauei. Rainer Maria Rilke Traklen heriotzan esan omen zuen: “*Wer mag er gewesen sein?* Nor izan ote zen?”. Bada, garai berrien eta zaharren arteko zubi izan zen idazle efimero bat baino ez. Baina halako obra labur batek gauza asko gordetzen ditu. Drogek eta tristeziak halako punturaino eroan zuten idazlea, non esploratu zituen lurralde berriak, XIX. mende-koak alde batera utzita.

Lagunek aire aristokratiko bat ikusten zioten Trakli, baita bere gainbeheran ere. Austriarra izan zen kanpoko munduak gainezka egin zion bihotz noble klasiko bat, mozkortia eta drogei emana. Klasikoa da ezinbestean –hala irakatsi zioten Austria-Hungariako gustuan–, baina baita sano plastikoa eta modernoki berezia ere. Irudi distiratsuekin harritzen du irakurlea, beste errealtate bat sortuz, Rimbauden argialdi arean irrazionalen airea daukana: “Edo gauean artzainak kantari eta oreinak datozkie/ Sutondora, zuhaiztiko antzinako dolu,/ Dantzariak horma beltz batean gora;/ Eskarlatazko banderak, algarak, eromena, tronpetak”.

Poetaren barne mundua, espresioa, errealtatetik harago doa. Eta barne mundu hori zehatzagoa da inpresio iragankor bat baino. Horregatik Traklen poesiak amets baten eitea hartzen du azkenean, errealtatearena baino gehiago: “Bakartia izarpean doa/ Gauerdi isilean barrena./ Mutikoa nahasirik ari da esnatzen,/ Begitartea ilargian gris erortzen”. Poeta babesgabeak edertasuna eta obsesioak aldizkatzen ditu. Iluna eta argia da, bizitzaren alegoria itzel batean, non paisajea subjektiboa den eta dekadentea, gizakia letxi. ■

Igor Estankona



Erakusketa: 2014-2-8 / 2014-5-25
San Telmo Museoa

GALIARREN ARUAN

CESAR AURREKO AKITANIA

Bisitak eta jarduerak: www.santelmomuseoa.com

STM San Telmo Museoa

Inrap

donostiakultura

EL DUELO DE LOS REYES

berria

GARA

naiz

www

www

www

Rockaren alde gaizto eta makurrena



Demon Tales
Screamers and
Sinners

Nekrosound, 2013

ARRASATEKO inguruak aspalditik izan du lotura zuzena punk eta Oi! musikarekin. Azken estilo honen kasuan, 90eko hamarkada osoan kaskamotzen irla izan zen Arrasate; beste inon ez zegoelako halakorik, eta herri honetan berriz, mordo. Gerora, halako taldeak ugaritu egin ziren eta oraindik ere harrobia badago. Baina azken urteotan musikan aritzen direnetako asko punk-rockera, folk kutsuko rockera eta beste estiloetara pasatu izan dira. Oro har rockaren baitako estiloen abanikoa handitu egin da nabarmen.

Horien artean, harrigarria eta pozgarria da psychobilly talde bat sortzea, Euskal Herrian halakorik ia aurkitu ezin delarik; zer esanik ez, hiriburuetatik kanpo. Jakina, Arrasate eta Aretxabaletako musikari hauek ez dira hasiberriak eta bakoitzak bere ibilbidea du atzetik: Aretxabaletako Neallta Fola street-punk taldea, Oñatiko Golpe de Estado punk-rock taldea eta rock instrumentala egiten duen Los Galerna talde arrasatearra, besteak beste.

2012an entseatzen hasi eta miresten dituzten Nekromantix, Mad Sin, Johnny Cash, The Torments, Gutter Demonds, Meteors, Social Distortion eta abarretik abiatuta, beren kantuak sortu zituzten. Hala, ia oharkabean Arrasaten, Bilbon, Madrilén, Berlinen... kontzertuak egiten hasi ziren. Eta berehala, taldea bera eta kantuak borobildu bezain laster, *Demon Tales* lan luze eta txukuna eman dute argitara biniloan eta CDan, Aretxabaletako Nekrosound estudioan grabatutakoa.

Psychobilly taldea izateko dena dute: deabruak gidatzen duen kontrabaxu frenetiko, 50eko hamar-



JOSU TXINTXURRETA

kadako rock-and-rollaren gitarra riff berezkoenak, punkaren eta bateriaren ostia txarra, lurrazpiko hitzak eta, batez ere, jarrera. Hala, emaitza sinesgarria eta indartsua lortu dute, bertakoak harritu dituzte eta kanpoan ere onespina jasotzen ari dira.

Baina diskoaren nabarduretan arakatz gero, hortik harago doa taldea: asko dauka punketik; horra hor, zuzenean taldeak duen indarra eta abiadura. Horretan zeresan handia dute taldekideetako batzuen aurrekariak. Eta, bestalde, taldeko bi partaide rock instrumentala egiten duen Los Galerna talde irudimentsutik etortzeak zeresan handia dauka kantuetan lortutako instrumentazio eta moldaketa aberatsetan zein saxoaren erabilera jantzia; hori ez da batere ohikoa halako taldeetan eta zeharo berezi egiten ditu.

Ingelese abestutako kantuen artean, bada psychobillyaren patroiak bete-betean dituzten pieza azkar eta ilunak (*Alien, Evil thrashmen, Fire in my head, My way...*); The Clash-etik edo punketik hurbil dauden pieza rocker-ak (*Willie the fisherman, Kendrick's psycho mansion...*); eta western kutsu handia dutenak (*Lonesome thief, Sarg surfen...*). Horrez gain, hillbillyarekin ere ausartu dira (*Little Jim*) RIP taldeko Julek banjoarekin lagunduta, eta dagoeneko hit izateko jaio den *Io io* kantuan swinga, 50eko hamarkadako rock-and-rola eta punka batu dituzte modu dotore eta bizi-bizian. ■

Iker Barandiaran



JATORRIZ ASIAKOAK DEN LANDARE ATSEGINEZ	↓	BESTALDE ----- ATZIZKI TOPONI- MIKOA	↓	ZOTAL, MOKIL	↓	HAVANG(NL)-CC BY SA 	BAGA, BIGA,... ----- GORPUTZ GURUINAK	↓	UKUILUA ----- ARGAZKIKO HERRIA	↓	GELDITU, LASAITU ----- TRESNA	↓
ALTxATU ----- JADANIK	→						HILOTZ ----- ZARETEN HAUEK	→				
↓		TORIOAREN IKURRA ----- IKUSLIAR, IKUSTARI	→			KATALU- NIAKO DOMEINUA ----- BIGUNA	↓	ZIKIN, LIZUN ----- SOKA-PUSKA MOTZA	→			
EZINEZKO	GAUEAN ESNA EGON ----- ARGAZKIKO HERRIALDEA	↓							AKATS FISIKO EDO PSIKIKOA ----- AULKIA	→		
↓	↓			FAMILIAKO ----- ORDU, GARAI	→				↓		LANDA, SALBU ----- MEHEA, ESTUA	→
ERABILI ----- DEITURAK	→			↓		BELDURTU, IZUTU ----- ARANOND OA REN FRUITUA	→				↓	
↓						↓		SOS ----- GIPUZKOAN, HERREN	→			DONOSTIAKO MENDIA
INTERJEK- ZIOA ----- NAFARROA- KO HERRIA	→		UGARI, NARORO ----- ZEIN TOKITAN	→				↓	EGUNAREN ZATI ILUN ----- RONA	→		↓
↓		↓			ALKANDORA ----- ERBIOAREN SINBOLOA	→			↓		LITROA ----- KILOMETRO	→
ORoz GAINETIK, ... ----- ENPARAU	→				↓		AHOTIK IRTEN ----- KILOA	→			↓	
↓							↓		HAUR HIZKERAN, EDARI	→		

BORGQUEEN



	S	B				H	K	E		
P	O	Z	E	Z		T	I	O	A	K
J	A	S	O			G	O	R	P	U
J	A	T	H	C		Z	A	N	T	A
	B	E	I	L	A	T	U			
E	Z	I	N	E	T	X	E	K	O	A
	U	S	A	T	U	I	K	A	R	A
A	B	I	Z	E	N	A	K	D	I	R
E	T	N	A	R	O	K	I	G	A	U
A	R	O	N	O	A	T	O	R	R	A
G	A	I	N	E	R	A	K	O	M	A



Hainbesterako eta gehiago

1936KO AZAROAREN HASIERAN Arrasateko bost emakume fusilatu zituzten tropa frankistek. Floren- cia Olazagoitiak 40 urte zituen hil zutenean. Hiru seme-alaben ama zen eta bost hilabete haurdun hil zuten. Baina halako kasuak “sal- buespena” izan ziren; gerran atxi- lotu, kartzelaratu eta fusilatutako gehienak gizonezkoak izan ziren. *Arrasate 1936: emakumea, gerra eta errepresioa* dokumentalean lekukotza eman dutenak gerrako protagonisten azken lerroan daude, ezkutuan, isilpean. Galtzai- leen alderdian daude eta, gainera, emakumeak dira.

Dokumentalaren aurkezpenean, Intxorta 1937 elkarteko kide Julia Mongek esan zuen lekukotza horiek biltzea ez dela lan erraza izan, batzuek atzera egin zutelako, eta hitz egin dutenek, askotan, beren bizipenei dagokien garrantzia ematen ez dietelako. Agian horregatik, lekukotzak apalak dira, duinak. Eta dokumentalaren egileek tonu horri eusten asmatu dute. Gertatutakoa- ren irudi errealik ezean, dramatiza- zioetara jo dute. Errepresentazioak egoki girotzeaz gain, dramatismo funsgabea saihestu dute. Protago- nistak ez dira biktimismoan jausten, biktimak izan arren. Bizirik ateratzeak ez baitu esan nahi biktimak izan ez zirenik. Fusilatuen emaz- teak, arrebak, alabak ziren, haien gorpuen bila Ondarretako kartzela- ra joan behar izan zuten, edo ilea



*Arrasate 1936:
emakumea, gerra eta
errepresioa.*

Dragoi Produkzioak, 2013.

larru-arras moztu zieten eta horrek zekarren umiliazioa jasan behar izan zuten.

Lehengo batean, blog batean irakurri nuen emakumei ilea mozte- rena faxisten kontua izan ohi dela, baina ez eksklusiboki. Bigarren Mundu Gerraren amaieran nazi- kin harremanak izandako emakume frantziar askori ere ilea moztu zie- ten, umiliazio publiko gisa. Doku- mentala ikustean, blogaren sarrera-

ren amaieran irakurle batek utzitako iruzkinaz gogoratu nintzen: “Ez da hainbesterako, ilea hazi egiten da”. Iruzkina sinplismoa iraingarria da, eta metafora gisa, erabat okerra. Ilea berez hazten baita, baina gerra ostean emakume arrasatear haien- tzat gauzak ez ziren bere onera eto- rri besterik gabe. Erbestera joan behar izan zuten batzuek, familia osoa jaso behar izan zuten besteek, eta gogor lan egin behar izan zuten, lan egiteko aukera zutenean behin- tzat, lan bila zebiltzanek erantzun hau jaso ohi baitzuten maiz: “Gal- tzaileentzat ez dago lanik”.


Emakume horien meritua ez da soilik gerraren ondorioak jasan izana, gerra oste luzean aurrera egiteko gaitasuna baizik. Baina haien hitzetan ez dago heroikota- sunik, ezta amorrurik ere, gerran bizitakoekin bakeak egin balituzte bezala. Dokumentalean hitz egi- teari uko egin ziotenek nahiago dute ez oroitu. Parte hartu duten batzuek besterenak nabarmendu dituzte, beren buruari garrantzia kenduta. Baina dokumentalaren amaiera aldera lekuko batek urte- tako gutxiesteei, mesprezuei, isilta- sunari erantzuten die, serio, kame- rari zuzen-zuzen begira: “Hainbestera- ko ez zen izango... Hainbesterako ez, gehiago”. ■



Nagore Irazustabarrena

Kanadan suzko bola erori da zerutik

MAIATZAREN 4AN, Kanadako Ontario probintziaren hegoaldean, hainbat automobiletako kamerek mugitzen ari zen gorputz gori bat grabatu zuten; ondoren, eztanda handi bat entzun zen. American Meteor Society elkartearen arabera, meteorito baten lurreratzeak eragin zuen eztanda hori. Atmosferarekin talka egitean sortu zuen argitasuna eguzkiak sortzen duen adinakoa izan zen une batzuetan.



Horrelakoak askotan gertatzen dira, baina meteoritoak pertsonak bizigaren lekuetan erortzen direnean baino ez gara konturatzen; adibidez, iragan apirilaren 19an, Errusiako Murmansk hirian. Frantziako espazio-agentziak (CNES) dioenez, egunero 100 eta 1.000 tona bitarte material ailegatzen zaigu espaziotik. Gehiena hauts eran, zorionez. ■



Arazoak bularretako protesiekin


2001 ETA 2012 urteen artean 610.113 bularreko protesi ezarri ziren Frantziako Estatuan, horietatik %80 helburu estetikoekin.

2010ean alarmak piztu ziren PIP markako protesien inguruan. 2010 eta 2012 urteen bitartean 2.000tik gora emakumek adierazi zuten arazoak eduki zituztela PIP protesiekin, eta kopuru hori izugarri hazten ari da azken bi urteotan. Hala ere, urtero 50.000 protesi ezartzen dira Frantzian, eta osasun arduradunak kezkatuta daude datozen urteetan izan daitezkeen ondorioak direla eta.

Horregatik, zazpi edo hamar urtetik behin protesiak aldatzeko aholkatu dute, silikonazko protesien propietateak aldatuz joaten baitira eta minbizia sortu baitezakete. ■



Bularretako protesiak.



Antibiotikoekiko erresistentziaren mehatxu larria

Osasunaren Munduko Erakundeak ohartarazi du mikrobioek antibiotikoak jasateko duten erresistentzia handitzen ari dela, eta horrek, etorkizunean, infekzioen aurkako borrokan oso ondorio kaltegarriak izan ditzakeela. Antibiotikoen osteko arorantz goazela adierazi du OMEko Osasun Segurtasuneko zuzendariorde nagusiak.

ttiki.com/64519
(Gaztelaniaz)

Zelakantoa, dinosauroen garaitik dirauen arraina

Orain dela hamarkada batzuk aurkitu zituzten lehen zelakantoak Indiako ozeanoan. Orduz geroztik gero eta gehiago behatu dituzte, eta orain gutxi argazkiak ateratzea ere lortu da. Zein da arrain horren xarma? Bada, orain dela 365 milioi urte sortutako espeziea dela.

ttiki.com/64520
(Frantsesez)

Informazio berria aurrez genituen usteei egokitzen diogu

Noraino da purua arrazoa? Neurozientzialariek frogatu dute arrazoitze prozesuetan berebiziko garrantzia dutela emozioek. Hala, informazio berria jasotzen dugunean lehenetik genituen sinesmenei eusten diegu, informazio horrek gure aurreko usteak hankaz gora jartzen dituenean ere.

ttiki.com/64521
(Euskaraz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Bihotzeko prozesioa

“AKAZIA LORE, ANTIXOA URRE” esaerari adi, lagun koadrilatxo bat urtero bildu ohi gara udaberriaren bihotzari gorazarre otorduan. Arrautzetan pasata, antxoa eta sasi-akazia lorea (*Robinia pseudoacacia*), sasoiko bikote onenetakoa da platerean. Ilar (*Pisum sativus*) eta baba (*Vicia faba*) parearen parekoa.

Onenetik onenera dabil gure ahosabaia udaberriaren bihotzean. Bihotz hau sagarrondoak (*Malus x domestica*) mugatzen du bere loral-diarekin. Loratze hau ez da zurtza. Ilara luzeko prozesio baten ikurra da. Gaur, maiatzaren seigarrena, lantokitik etxerako bidean lore prozesio hau ikusi dut: milorria (*Achillea millefolium*), orkidea (*Orchis mascula*), lizarra (*Fraxinus excelsior*), lizar loredua (*Fraxinus ornus*), isatsa (*Cytisus scoparius*), elorri zuria (*Crataegus* sp.), Indiako gaztainondo zuria eta gorria (*Aesculus hippocastanum* eta *A. x carnea* “Briotii”), zuandorra (*Cornus sanguinea*), horma-bitxilorea (*Erigeron karvinskianus*), intsusa (*Sambucus nigra*), pasmo-belarra (*Anagallis arvensis*), haritza (*Quercus robur*), *Paulownia tomentosa*, akazia zur-beltza (*Acacia melanoxylon*), *Photinia x fraseri*, otso-lizarra eta hostazuria (*Sorbus aucuparia* eta *S. x aria*), arrosak (*Rosa* sp.), pitosporoa (*Pittosporum tobira*), sasi-urkitza (*Solanum jasminoides* “Album”), San Juan lorea (*Leucanthemum vulgare*), lihoa (*Linum ussita-*



Goian, ezkerrean: horma-bitxilorea (*Erigeron karvinskianus*).

Eskuinean: zaingorria (*Geranium robertianum*). Lerro hauen ondoan, orkidea (*Orchis mascula*).

tissimum), kala (*Zantedeschia aethiopica*), porrua (*Allium porrum*), tipula (*Allium cepa*), tipulina (*Allium schoenoprasum*), gorostia (*Ilex aquifolium*), limaondoa (*Citrus limetta*), limoiondoa (*Citrus limon*), laranjondoa (*Citrus sinensis*), ilarrondokoa (*Arum italicum*), gaukarra (*Viburnum opulus*), orburua (*Cynara scolymus*), kuku-belarra (*Aquilegia vulgaris*), zaran-belarra (*Chelidonium majus*), tartikua (*Euphorbia lathyris*), ahozkornoa (*Euphorbia amygdaloides*), hirusta zuria eta gorria (*Trifolium repens* eta *T. pratense*), basabitxilorea (*Bellis perennis*), harrautsia (*Saxifraga hirsuta*), marrubia (*Fragaria vesca*), ostargibelar horia (*Iris pseudacorus*), apo-



mahatsa (*Tamus communis*), oroilo-rea (*Myosotis lamottiana*), borraja (*Borago officinalis*), kuku-lorea (*Lychnis flos-cuculi*), goilora (*Epilobium hirsutum*), Judaren arbola (*Cercis siliquastrum*), kaputxina (*Tropaeolum majus*), arbia (*Brassica napus*), zaingorria (*Geranium robertianum*)... ■



30 x 530

Meikleour, Perth and Kinross, Eskozia. Munduko landare hesi handiena dago bertan; 1966az geroztik, *Guinness World Records* liburuan hala jasoa dute. Pagoa, *Fagus sylvatica*, 1745ean aldatua, 30 metro garai eta 530 luze da. Hamar urtez behin inausten dute: lau lagunek sei astean burutzen dute lana. Ikustera joan nahi baduzu, Perthetik Blairgowriera doan A-93 errepidearen bazterrean dago. Argazkiren bat bidali... ■



EKILORE
Lorezaintza eta loradenda

© 943 795 546

Elorregi bidea · Arrasate (Gipuzkoa)
v_ekilore@yahoo.es

Dodoa: umiliatua eta suntsitua

LONDRES, 1865. Lewis Carrollen *Alice's Adventures in Wonderland* (Aliceren abenturak lurralde miresgarrian) argitaratu zen. Nobelako pertsonaietako bat dodoa da; hirugarren atalean dodoak denek irabaziko duten lasterketa zentzugabea antolatzen du. Carrollek azaldu zuenez, dodoak egilea bera irudikatzen du. Idazlearen benetako izena Charles Lutwidge Dodgson zen, eta totela zenez, izena galdetzen ziotenean “Do-do-dodgson” botatzen omen zuen.

Garai hartan gehienek ez zekiten dodoa zer zen, eta Carrollen liburuaren arrakastari esker, alegiazko hegazti mitikotzat hartu zuten. Oker zeuden, baina ez erabat. Egia da ordurako dodorik ez zela existitzen, baina biz-pahiru mende lehenago, hegazti baldarra lasai bizi zen Maurizio uhartean.

Raphus cucullatus, Indiako Ozeanoko irlako espezie endemikoa, metro bat luze zen eta 13-25 kilo arteko pisua izan ohi zuen. Hego txikiak ez zioten hegan egiteko ahalmenik ematen, ezta beharrik ere. Maurizio nahi adina fruitu zeukan jateko eta moko luze sendoari esker kokoak hausteko ere gai zen. Mehatsurik ezean, arrautzak lurrean erruten zituen. Inguruneari ederki egokitu-ta bizi zen, gizakia Mauriziora iritsi zen arte.

Eboluzioa medio, Afrikako usoaren ondorengoari hegan egiten ahaztu zitzaion eta hegazti mantsoa ehizatzen oso erraza zen. Gizakientzat mauka ederra zirudien; 10-20 kilo haragi ahalegin handirik egin gabe. Baina dodoa ez zen horregatik desagertu, haren haragia zaila baitzen, eta dasta txarrekoa.

Gizakiek dodoen habitata aldatu zuten. Basoak suntsitu zituzten, eta espezie berriak ekarri: txerriak, makakoak, txakurrak, katuak, arratoiak... Batetik, animalia berriek ekarritako gaixotasunek dodoen hilkortasuna handitu zuten, eta bestetik, ugalketan ere eragina izan zuten, dodoen habia babesgabei erasotzen baitzieten. Espeziearen berri 1574. urtean iritsi zen lehenengoz Europara. Azken alea 1662an ikusi omen zuten. Mende bakarrean desagerrarazi zuten gizakiek dodoa.



NATURAL HISTORY MUSEUM OF LONDON

Edwardsen dodoa, Roelant Saveryk 1620ko hamarkadaren amaieran margotutakoa. 1759an koadroa George Edwards ornitologoaren eskuetan zegoen, eta British Museumari ematea erabaki zuen; hortik datorkio izena artelanari.

Baina espeziea erabat suntsitu baino lehen, ederki umiliatu zuten. Portugaldarrak 1607an iritsi ziren irlara. Kokaleku iraunkorrak ezarri ez arren, badirudi hegazti baldarra bataiatzeko astia izan zutela. *Doudo* edo *doido* hitzak *ergela* esan nahi du portugesez. Portugaldarren ondoren, Herbehereetako konkistatzaileak iritsi ziren. *Dodoor* hitzak “alferrontzi” esan nahi du nederlanderaz. Alternatiba ez zen askoz atseginagoa: nederlanderrek *walghvogel* ere esan zioten, hau da, “indioilar okaztagarri”.

Dodo hitzaren jatorria azaltzeko teoria begirunetsuagoak badira. Batzuek diote nederlanderazko *dodaers* hitzetik datorrela; Herbehereetan hala esaten diote txilinporta arruntari. Baina bi espezieek ez dute antz handirik. Azkenik, hegaztiaren deiarekin lotzen duenik ere bada. Dodoak “doo-doo” egiten omen zuen, Carroll benetako abizena esaten ahalegintzen zenean bezalatsu. ■



Arrastoak

Cabanellasek frankismoa iragarri zuen



MIGUEL CABANELLAS (1872-1938) Espainiako armadako jenerala izan zen, eta 1936ko gerra piztuko zuen altxaldiaren buruzagi nagusietakoa. Altxatutako militarrek Francisco Franco haien buruzagi hautatu zutenean, jeneralak hitz premonitorio hauek bota zituen: “Ez dakizue zer egin duzuen, ez baituzue nik bezain ondo ezagu-

tzen; nik nire agindupean izan nuen Afrikako armadan (...) Zuek nahi duzuen bezala Espainia haren eskuetan uzten baduzue, berarena dela pentsatuko du, eta ez du utziko inork ordezkadezan, ez gerran, ez gerra amaitu ondoren, hil arte”. Cabanellas gerra amaitu baino lehen hil zen, zenbateraino asmatu zuen jakin gabe. ■

EUROPAKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

Begi bat Europan, bestea Estatuan

Maiatzaren 25eko hauteskundeen ondoren euroganberan eserlekua izateko asmoz dira. Josu Juaristi Abaunz (Azkoitia, 1964) EH Bildu, BNG eta beste alderdi batzuk biltzen dituen Herriek Erabaki zerrendaren buru da. Izaskun Bilbao Barandica (Bermeo, 1961) bigarrenenez aurkeztuko da, eta EAJ, CIU eta Coalición Canaria alderdiek osatutako zerrendan bigarren doa.

| URKO APAOLAZA AVILA |

Argazkiak: Dani Blanco



Hauteskunde kanpaina hasi baino lehen izan gara bi hautagaiekin, ordurako hitzaldi eta ekitaldi ugari egin dituzte baina.

Europako hauteskunde hauek inoiz baino garrantzitsuagoak direla entzun izan da. Zergatik?

Josu Juaristi: Guretzako oso garrantzitsua da Europako Parlamentuan egotea eta hauteskunde hauek ere hala dira, gure herriaren etorkizuna eta herritarren eskubideak Europan ere jokatzeko direlako, hori da gure eremu politiko naturala.

Izaskun Bilbao: Batetik, garrantzitsuak dira lehenengoz Legebiltzarreko talde bakoitzak aurkeztu beharra duelako hautagai bat Europako Batzordeko presidente izateko, eta hori berria da. Bestetik, inkestek esaten dute jendearen parte hartzea baxua izango dela, baina hori ez da gauza berria. Gu Legebiltzarrean ez bagaude inork ez du Euskadiz hitz

egingo. Azaldu behar dugu Euskadinekin beste eredu sozioekonomiko bat garatzeko gai izan garela azkeneko urteetan, eta batzordekoak begiratzeko daude guk egindakoari.

Murrizketak egiteko garaian gobernuek ahotan izan dute Europar Batasuna (EB). Zeinena da krisi honen ondorioen ardura?



J. Juaristi: Ez nago hain ados eredu sozioekonomiko propioaren kontu horrekin; izan baldin badugu galbidean dago nabarmen. Lakuako eta Iruñeko gobernuek askoz gehiago egin dezakete. Egia da faktore espainiarra zama handia dela eta sekulako kaltea egiten digula, baina hemengo erakundeetan beste politika bat egin daiteke, inbertitu daiteke askoz gehiago industrian, hezkuntzan edo osasunean. Erantzukizunak hurbilago ere ikusten ditut nik.

I. Bilbao: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen %73 gastu soziala da, bilatu Europako eskualde bat portzentaje hori duena. Guk gure aldarrikapenetan nahi dugu nazio izan, baina politikaz hitz egiten

dugunean Batzordearentzat ere eredu gara.

Batzordeko kideak, Kontseilukoak, Europako Banku Zentralekoak, ez dituzte herritarrek aukeratzeko. Legitimitate politikoa falta dago hor? Eta balego, hori izan liteke Batasunaren eta herritarren artean dagoen langaren arrazoia?

J. Juaristi: EBk defizit demokratiko asko ditu esparru askotan. Neurri handi batean gaurko funtzionamenduak berak uxatu egin ditu herritarrak, gardentasun falta duelako, zerbait arrotz bezala ikusten delako. Ez dut uste politika desprestigiaturik dagoenik, baina elite politikoa bai. Eta sentsazioa daukat askotan europar hauteskundee-tako abstentzio handi horrekin elite

politikoetako batzuk behintzat nahiko eroso sentitzen direla, ez dutelako herritarren parte-hartze zuzenago eta aktiboagorik nahi.

I. Bilbao: Europaren proiektua askoz federalagoa izan behar da. Ona izango litzateke gizarteak zuzenean hautatu ahal izatea Batzordeko presidentea. Europak lidergo argia behar du, ez du zentzurik Batzordean eta Kontseiluan presidente bana izatea, presidentek bakarra izan behar du eta Legebiltzarrak orain duena baino eskumen gehiago izan behar lituzke. Legitimitate falta baino, esango nuke oraindik gauza asko daudela egiteko. Gure eskeman soberan dagoena Kontseilua da, hor estatuak daude eta askotan beren portaerarekin eta gardentasun faltarekin oztopo dira.

Europako Parlamentuan eskuin muturraren presentzia inoiz baino handiagoa izango omen da. Zerk edo nork elikatzen du Europa xenofobo eta insolidarioa?

J. Juaristi: Azken urteetako eskuinaren borroka ideologikoak. 2008an krisia lehertu zenetik eskuinak berak utzi die bidea libre ideia faxistei eta xenofoboiei. Egia da inkestetan aipatzen dela asko igoko direla, talde bat osatuko dutela lehenengo aldiz eta 100 parlamentari ere izan ditzaketela. Eskuinak eta alderdi sozialistek ez diote behar bezala aurre egin fenomeno horri, estatu askotan gertatu diren gauza larri askoren aurrean ez dute erre-akzionatu. Hala ere, ezkerrek ere indar handiagoa izango omen du eta hori bai dela berri ona gure ustez.

I. Bilbao: Bi arrazoi daude jendeak talde xenofoboiei eta euroeszeptikoiei konfiantza emateko. Alde batetik, jende asko dezepzionatuta dago Europarekin. Buelta eman behar zaio horri, jendeak benetan eza-gutzeko zer egiten den; medioen laguntza ere behar da, zeren eta beti dira galdera ezezkorrak. Batzuk desilusionatuta daude Europarekin, Troika dela, austeritate dela, immigrazioarekin ez dagoelako politika argi bat, langabeziaren aurrean ez dagoelako estrategia bateraturik edo pentsio-etan europar guztientzako gutxi-neko bat. Europa sozial hori

J. Juaristi: Krisi honen ardura nagusia finantza sistemak eta gestio sozioekonomiko negargarriek dute. Kontua da herritarrak ari direla ondorioak jasaten. Europa aitzakia ederra da, errudun aproposa kontu askotarako, eta estali egiten du estatu-entzako kudeaketa eskasa eta ankerra. Ereditu sozioekonomiko propio bat izateko burujabetza behar dugu, benetakoa, behar dugu estatu bat izan European.

I. Bilbao: Guk ez dugu bat egin Europako arduradunek eta Troika horrek hartutako neurriekin eta Barrosori esan izan diogu ez gatozela bat austeritatearekin, azken batean langabezia sortu eta enpleguaren garapena murrizten duelako. Baina hori esanik ere, gogoratu behar da Espainia bera joan zela Europara esanez arazo bat zuela banketxeekin. [László] Andor Enpleguaren komi-sarioak alderdi sozialistako diputatuari zera esan zion, honek galdera bat egin zionean eztabaida Mariano Rajoyren kontra jartzeko: “Espainia-ren arazoa da ez duela eredu ekonomiko bat”. Komisario hori Euskadin izan zen eta han ikusi ahal izan zuen berrikuntzarekin garatu duguna: “Ereditu horrekin langabezia erdia daukate, ondo egin dituztelako gauzak”, esan zuen.

“Espainiako estatuak gero eta nabarmenago jokatzen du lobby moduan Bruselan eta Estrasburgon. Ezinezkoa da akordio bilateral bat, harreman adeitsu bat”

Josu Juaristi Abaunz

landu egin behar da. Eta gero daude beste euroeszeptiko batzuk, xenofoboak. Zein dira? Ikusten dutenak azken aldian hartutako neurriekin estatuak, XX. mendean ezagutu ditugun moduan, desagertzen ari direla, gero eta soberania gutxiago dutela. Frantzia Le Penekin ikusten ari gara. Horiek guztiak ugarituko dira, baina agian aukera bat ere izango dugu pentsatzeko ea zer ez dugun egin ondo.

Galdera ezezkorrak egiten ditugula diozu, baina datuak ere hala izan ohi dira. Ikerketa baten arabera 23.000 hildako izan dira azken urteetan Europara iritsi nahirik. Hori ez du Le Penek ekarri, kolore askotako gobernuen politikaren ondorio da...

I. Bilbao: Lampedusakoa gertatu zenean, [Cecilia] Malmström komisarioa Kontseilura joan zen neurri zehatz batzuk proposatuz. Estatu gehienek zer esan zuten? Ez zela euren arazoa. Hori gainditu egin behar da, ezin dugu estatuekin topo egin halako arazoak daudenean, Europako arazo bat delako. Baina berri baikorrak ere badaude, Erasmus programa adibidez, %40 igo dugu aurrekontua.

Josu, zuri zer iruditzen zaizu Europak daraman politika soziala, immigrazioaren inguruan eta beste arloetan.

J. Juaristi: EBk ez du politika sozial bat, ez dago eredu sozial europar bat, gutxienez 28 daude. Ez du indar nahikoa hor eragiteko eta estatuek egiten dute komeni zaiena; hori da arazoetako bat. Izaskunek aipatu duen moduan, gutxieneko estandar batzuk behar dira: oinarritzko eskubide sozialak, ekonomikoak eta baita politikoak ere bermatu egin beharko lituzke EBk.

Nola baloratzen duzue Eskozia eta Kataluniako prozesu soberanisten aurrean EBk duen papera? Herman Van Rompuy kontseiluko presidentearen esanetan sezesioa ez zaie interesatzen ezta eskatzen dutenei ere.

I. Bilbao: Horiek adierazpen politikoak dira, hitz hutsak. Begira dezagun Europaren ibilbidea: Alemaniaren bateratzearekin 16 milioi pertsona egun batetik bestera europar bihurtu ziren. Eta non dago

prozedura? Erabaki politikoa izan zen. Eskozia, Katalunia, baita Euskadiren kasuan ere —guk Ibarretxerekin gure prozesua izan baikenuen— Europak marko orokor bat sortu behar du, guztiok jakin dezagun zein prozedura jarraitu behar den. Eskozia europarra da eta berak eskubidea du, ni euskaldun moduan europarra naiz, baina ez dut eskubide bera. Harmonizazio fiskala egiten gabiltza, zergatik ez dugu arlo politikoan gauza bera egiten? Barne hedapena izan liteke. Hemen dena da erabaki politikoa.

Orduan, harmonizazio politikoa beharko litzateke European horrelako prozesuak aurrera eramateko edo norberak bere bidea egin behar du? Bide katalana, euskal bidea...

J. Juaristi: Marko orokor europar batek bermatu beharko lituzke oinarritzko eskubide horiek. Eskoziako kasuak erretratatu duena da Madrilén izaera antidemokratikoa. Van Rompuy eta Barrosoren deklarazioak inpultsu politiko baten ondorioz eginak dira. Espainiako Estatuak gero eta nabarmenago

“Europak marko orokor bat sortu behar du, guztiok jakin dezagun prozedura zein den. Eskozia europarra da eta berak eskubidea du, ni euskaldun bezala europarra naiz eta ez dut eskubide bera”

Izaskun Bilbao Barandica

jokatzen du lobby bezala Bruselan eta Estrasburgon. Ezinezkoa da akordio bilateral bat, harreman adeitsu bat. Herritarrei hitza eta erabaki ahalmena ematea, hori da ezarri behar den protokolo europarra, eta ez da utopia bat, demokrazia da.



Ibarretxe lehendakariak Gure Esku Dago ekimenari aholkua eman zion Bilbon antolatutako hitzaldian: “Aurrera, baina elkarrekin”. Europar Parlamentuan EAJ eta EH Bildu bat egiteko prest leudeke erabakitzeo eskubidearen inguruan?

I. Bilbao: Hau ez da gauza berria. Duela urtebete Iñaki Irazabalbeitia iritsi zen [Aralarrek eserlekua txandakatu du ERC eta BNGrekin] eta berarekin harreman ona izan dugu. Hainbat galdera aurkeztu dugu, *Parot doktrinaz* adibidez, eta Egunkaria kasua ere eraman genuen Legebiltzarrera.

J. Juaristi: Erabakitzeo eskubidea guretzako gakoa da, baliabide demokratikoa, eta hori baldin bada elkarlanerako tresna, guregatik aurrera.

I. Bilbao: Hizkuntza gutxituen eta estaturik gabeko nazioen taldeartean gaude eta azken bilkuran “Estrasburgoko Adierazpena” deitu dioguna onartu genuen. Hor esaten da pertsonen eskubideak eta identitateak onartu behar direla. Adierazpen hori lortzeko bost urtez egon gara lanean taldeartean, baina ez digu denborarik eman eztabaida Legebiltzarrera eramateko. Dimentsioa beste bat da, baina bidea hasita dago.



J. Juaristi: Horra iristeko lehenik hemen egin behar dugu bultz, hemen dago olatua; horrek asko erraztuko du Europako Parlamentura iristea.

Gauza bat dira adierazpenak eta beste bat praktikan horiek zer ekarzen duten. Esaterako, hizkuntza gutxituen kontuan Euroituna hor dago, baina Frantziak ez du errespetatzen eta Nafarroako Gobernua ere askotan ohartarazi dute. Nola bermatu halakoak errespetatzea?

I. Bilbao: Aurten historian lehen aldiz Europako Parlamentuan onartu da hizkuntza gutxituen defentsarako txosten bat, *Alfonsi* txostena. Duela hosi urte guretzat ilusio bat zen hori. Legebiltzarrean ekimenez ekimen egin behar da lan. Gauzak astun doaz? Bai. Azkarrago joatea nahiko genuke? Baita ere. Ez da koherentea gauza batzuk onartu eta gero ez betetzea. Horregatik diogu Europan erakunde indartsuak behar ditugula, onartutakoa betetzen ez duenak ondorioak izan ditzan.

J. Juaristi: EBri exijitu behar diogu errespetaraztea oinarritzko eskubideak; gure kasuan hizkuntza eskubideak oso inportanteak dira gainera. Ez da posible hain errealtate ezberdinak egotea kultura demokratikoan.

I. Bilbao: Alde onak ere badaude. Gogoratu Euskaltzaindiak Europa Saria irabazi duela.

Zer egin behar da Euskal Herriko bake prozesua behingoz Europar Batasuneko agendan sartzeko?

J. Juaristi: Gure artean lanean jarraitu, hemen egin lana, EBri jarrera aldaketa errazteko. Europa-

“AEBekin akordioaren alde nago dudarik gabe. Akordio horrek hemengo enpresa eta industrientzako aukera handiak sortzen ditu”. (Izaskun Bilbao)

ko Parlamentuan 2006an adierazpena egin zen, Basque Friendship ere hor dago. Diplomazia eta kontaktu horiek guztiak sendotu egin behar dira.

I. Bilbao: Euskadira egokitutako *Peace* programa bat ona izango litzateke, Irlandan bezala, horrela Europa inplikaturik egongo litzateke bake eta berradiskidetze prozesuan. Eusko Legebiltzarrean sortuta dagoen Bake eta Elkarbizitzarako ponentziatik proposamen bat egin beharko litzateke eta horrekin Europako Batzordera joan.

Bertan adostasuna lortu Europan afera beste modu batez aurkezteko, beraz.

J. Juaristi: Baita estatuen aurrean ere. Orain dagoena baino interpelazio sendoagoa egin behar litzateke Parisi eta Madrili. Hemen egiten den lana estrategikoa da Europari begira, fruituak ematen ditu, baina behar dugu Madrilen askoz posizio sendoagoa aurkeztu herri bezala. Horrek mugiaraziko du eta horren ondoren erreakzionatuko du Europa.

I. Bilbao: Alde biri eskatu behar zaie. Madrili eta erakundeei batetik, eta ETARI bestetik. Ahaleginak guztiei eskatu behar zaizkie.

J. Juaristi: Baina ahaleginak batek egiten ditu.

I. Bilbao: Gure alderdia hasieratik egon da buru-belarri hor, batzuekin eta besteekin diskrezioz hitz egiten, politikaren arloan eta kartzeletan dauden pertsonez. Egoera ez da erraza inorentzat.

J. Juaristi: Momentu honetan norbaiti presioa egin behar bazaio, eta ez diot nik bakarrik, Jonathan Powellek ere hala dio, Espainiako Estatuari egin behar zaio.

“AEBak eta EBren arteko merkataritza itunaren negoziazioa isilpean egiten ari dira. Atzeko atetik sartuko digute frackinga”. (Josu Juaristi)

AEBen eta EBren artean merkataritza ituna adosten ari dira. Ekologisten ustez Europako ingurumen araudiak ahuldu eta frackingaren erabilera erraztuko du. Zein norabide darama Europak trantsizio energetikoan?

J. Juaristi: Negoziatio hori isilpean egiten ari dira, oso garrantzitsua da baina ezkutuan egiten dute eta ondorio larriak izango ditu. Atzeko atetik sartuko dizkigute frackinga eta beste kontu batzuk.

I. Bilbao: Ni AEBekin akordioaren alde nago dudarik gabe. Akordio horrek ez dakartza aldaketak soilik energiaren arloan, hemengo enpresa eta industrientzako aukera handiak sortzen ditu. Beste gauza bat dira frackinga, energia berriztagarriak edo nuklearrak. Europak derrigorrez behar du autoaskitasun energetikoa. Guk energia berriztagarriekiko apustua egitea eskatu dugu. Frackingaren eta beste erregai alternatiboen inguruan Legebiltzarrean onartu izan dira txostenak esanez ikerketak egin behar direla, baina beti ingurumena eta pertsonen segurtasuna babestuz.

J. Juaristi: Ni azkoitiarra naiz eta gure herria bete-betean hartzen dute fracking zuloak egiteko proiektuek. Ez gaude batere ados horrekin. Europak energia alternatibo eta sostengagarrien alde egin behar du, hitz egiten da ekonomia berdeaz, baina gero ez da serio hartzen.

I. Bilbao: Europak badu bere posizioa, baina gero estatu bakoitzak egiten du nahi duena. Europari bakarrik ezin zaio errua bota.



Egunerokoan herritarroi eragiten diguten gauza asko erabakitzen dira Europan, tartean dago gurean eztabaida ugari sortu duen hondakinen kudeaketa. Zer esaten du Europak eta zer egiten dugu guk?

J. Juaristi: Nire ustez europar zuzentaruak egokiak dira eta bete beharrekoak. Zer esaten duten? Ahal dela ez dugula zaborrik sortu behar. Hori da egin behar dugun eraldaketa sozialaren parte bat, parte tekniko bat agian. Harritu nauena da gauza tekniko bat EAJk nola hartu duen tresna politiko moduan.

I. Bilbao: Europako zuzentaruak dio hierarkia bat egon behar duela eta esaten du zabortegiak desagertu behar direla. Gauza bat da zaborrak nola batzen ditugun, baina gero zer egiten duzu zaborrarekin? Eta Gipuzkoan dagoen eztabaida hori da. Guk Europar Batzordeari galdera egin diogu honen inguruan, ea gauzak argitzen diren.

Europak ere badio ezin dela erraustu birziklagarria ez den ezer.

I. Bilbao: Zero zabor ez du esaten.

EH Bai ez da aurkeztuko eta EAJ-PNBk Jean Tellechea izango du buru

IPAR EUSKAL HERRIKO EH Bai koalizioa ez da maiatzaren 25ean egingo diren Europako Legebiltzarrerako hauteskundeetara aurkeztuko. Philip Duluc, Anita Lopepe eta Peio Etcheverry-Aitzartek prentsaurrean azaldu dutenez bozetara ez aurkezteko arrazoi nagusia da Frantziako Estatuko barruti handietan ordezkarietza lortzeko aukerarik ez dutela.

Ezker abertzaleko koalizioak EH Bilduren zerrenda (Herriek Erabaki) sostengatuko du kanpainen. Euren esanetan zerrenda horren buru Josu Juaristik Europan ordezkatzeko dituela sentitzen dute. Nabarmendu dute Elorri Arin azkaindarra zerrendan doala (20 kideetik 15. postuan).

Jean Tellechea jeltzalea: "I am Basque"

EAJ-PNBk Jean Tellechea urruñarra izango du Europako hauteskunde hauetan zerrendaburu. Baionan egin zuten hautagaiaren aurkezpen publikoa, Andoni Ortuzar EAJko EBBren presidentea bertan zela. Ortuzarrek nabarmendu zuen mugaren bi aldeetan aurkezten den euskal alderdi bakarra dela eta "nazio ikuspegia" duela. Tellecheak, berriz, Agirre lehendakariaren hitzak erabili zituen ("I am Basque") eta esan zuen eskualdeak kon-tuan izango dituen Europaren alde egingo duela.

Dio ahalegina egin behar dela ahalik eta gutxien sortzeko, baina beti dago mordo bat ezer egin ezin dena eta hori balorizatu egin behar da. Intzi-

nerazioaz hori esan du, ahaleginak egiteko aurreko pausoetan, ez dena erre behar izateko. ■



HIZKUNTZA KUDEAKETA HEZKUNTZAN

Nola bermatu eleaniztasuna euskara kaltetu gabe

Euskararen jakintzak gora egin bitartean, behera egin du erabilerak. Aldi berean, mundu globalizatuan, geroz eta garrantzitsuagoa da hizkuntzak jakitea. Zer egin daiteke, orduan, eskoletan gazte eleanitzak sortzeko, baina euskararen osasuna ez okertzeko? Ikasle Euskaldun Eleanitzak programa dute abian Dimako eta Donostiako ikastetxe publiko banatan.

| SAIOA ALKAIZA GUALLAR |

Argazkiak: Sortzen



Bost urtez luzatuko den proiektua da Ikasle Euskaldun Eleanitzak eta bigarren urtea da aurtengoa. Argazkian Dimako Ugarana Herri Eskolako tailer bat ageri da. Dima Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean dago, 1.400 inguru dimoztarretatik gehienak euskaldunak dira. Alabaina, eskola barruan bezala, eskolaz kanpoko jardueretan euskararen erabilera bultzatzeko lanean ari dira.

“LEHENIK ETA BEHIN, euskararen erabilera sustatu behar dugu. Hori bermatuta, gainontzeko hizkuntzen inguruan hausnartuko dugu”. Donostiako Aitor Ikastolako zuzendari Julen Etxeberriarena da gogoeta. Bertan eta Bizkaiko Dima-ko Ugarana Herri Eskolan ari dira

Ikasle Euskaldun Eleanitzak proiektua garatzen. Helburua: euskara zaintzea, indartzea eta erabilera hauspotzea; oinarri hori sendotuta, ingelese eta gaztelania menperatzeko teknikak garatuko dituzte.

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak orain sei bat urte izan-

dako kezkaren kariatara sortu zen asmoa. Haien iritziz, egungo hizkuntza ereduak ez dute ziurtatzen euskalduntzea, halaber beste hizkuntza batzuk txertatzen dituzte curriculumean proiektu integralik eduki gabe. Ez dute uste formulak euskalduntzearen mesedetan lan



Ikastetxeko biztanle guztiek hartzen dute parte proiektuan. Ezkerrean, Donostiako Egia auzoan, Aitor Ikastolan, hausnarketan. Eskuinean, Dimako Ugarana Herri Eskolako gaztetxoa ahaleginean.

egiten duenik, ezta eleaniztasunaren onerako denik ere. Horrela jaio zen Ikasle Euskaldun Eleanitzak programa. Lantaldea egin zuten egitasmoari forma emateko, eta ondoren euskal ikastetxe publikoetan aritzen den Sortzen elkarteak arduratu zen abstraktuan pentsatutakoa errealitatean ekartzen. Eleaniztasun esperientzia berria probatuko zuten bi ikastetxe pilotu aukeratu zituzten.

Horrela heldu zen dinamika Dimara eta Donostiako Egia auzoan. Izan ere, errealitate soziolinguistikoa, urbanistikoa eta demografikoa ezberdineko bi leku nahi zituzten, ideia berbera garatu eta sor zitezkeen aldaerak ikusi eta aurrerantzean kontuan izateko. Eskolek baiezkoa eman zuten eta orain dela bi ikasturte hasi ziren egunerokotasunean aplikatzen.

Eleanitzak bai, baina nola?

Nola egiten da, baina, horrelako aldaketa txertatzeko? Euskara erabili eta gainontzeko hizkuntzak ongi ikasteko? “Urratsez urrats”, ziurtatu du Etxeberriak. Prozesu mantsoa da eta denbora eskatzen du. Dimako Herri Eskolako ikasketak buru Zefe Ziarrustak harilka-

tu du azalpena. Haren irudiko, lehen pausoa euskararekiko “lotura afektiboak eta bizipenak” ugaritzea da.

Diman era sinplean eman zioten hasiera programari: lehenik eta behin, euskararen egoeraren inguruko diagnostikoa egin zuten, eskolan eta herrian. Orain, herriko

“Lehenik eta behin, euskararen erabilera sustatu behar dugu. Hori bermatuta, gainontzeko hizkuntzen inguruan hausnartuko dugu”

Julen Etxeberria,
Aitor Ikastolako zuzendaria

eragileekin biltzen ari dira, denen artean euskarari lotutako espazio eta aukera berriak lortzeko ikastetxe eremutik kanpo. Donostian ere bide bera jarraitu dute, aurrean ingurua aztertu eta ondoren, herri eragileekin hitz egin dute garatu beharreko hizkuntza programa elkarrekin sortzeko.

Hala, bi ildo nagusiren bueltan hezuramaitzen da lana. Batetik, eskolan bertan jarduten dute burubelarri euskararen garrantziaz jabetzeko, eta bestetik, herrian. Horretarako, elkarlana “oso garrantzitsua” dela nabarmendu du Ziarrustak. Eta zergatik galde-tuta argi dauka: “Hezkuntzan denok garelako eragile”. Etxeberria ere ideia berari tiraka hasi da: “Euskararen erabilera zabaldu nahi dugu, gizarte osoan. Denok gara aktore, eta denok dugu egin beharra, gurasoek, gizarte taldeek, udalek...”

Orain, hizkuntza plana egituratzeko txostena sortu dute, eleaniztasuna lantzeko gida moduko bat. Hala, hor jaso dute zeintzuk diren herrietako norbanako eta taldeek bermatu beharreko gutxieneko baldintzak. Hala nola, irakasleak hizkuntzak irakasteko metodologiak arduratzea eta erabilerarako jarrera aktiboa sustatzea. Plazaratutako dokumentua Euskal Herri osoko gainontzeko eskolek erabili ahalko duten “bideorria” izango da, sortzaileen aburuz. Dena den, jakitun dira tokian tokiko egoerek asko baldintzatzen dutela lana. Kaleratutako aholku sorta norberak inguruari

Babeslea: Hernaniko Udala



Hernaniarrok Udal aurrekontuetan parte hartzeko prozesua laster abian...



Sortzen: Euskal Eskola Berriaren alde, baina publikotasunetik

SARE PUBLIKOKO IKASTETXEETAN Euskal Eskola Publiko Berriaren alde lanean diharduen elkarte da Sortzen. 1991n sortu zen eta geroztik EAEko eta Nafarroako 75 ikastetxe batzen ditu. Horiek guztiak ideia nagusi baten bueltan: indarrean dagoen eskola ereduari buelta ematea eta balore jakin batzuen baitan egituratuko den euskal hezkuntza eraikitzea. Orain, Ikasle Euskaldun Eleanitzak proiektuaren garapenerako ari da ekinean, baina programa hori baino gehiago da elkartea.

Sortzeneko kide Begoña Bitorikak azaldu du eskola “berria” nahi dutela, eta abstraktuan ulertzeko zaila den adjektiboaren mamia azaldu du: “Horrekin orain dagoena ez dugula nahi esaten dugu”. Sei puntu nagusiren bitartez irudika daiteke Sortzenek proposatutako eskola.

1. Euskalduna eta eleanitza izatea.
2. Autonomia pedagogian eta kudeaketan.

3. Langileen baldintzak defendatuko dituen.
4. Demokratikoa. Ikastetxeko partaide guztiak –ikasleak, irakasleak eta gurasoak– kontuan izango dituen.
5. Kalitatezkoa. Horren baitan hainbat balore defendatzen dituzte: laikoa, hezkidetzan oinarritua, integratzailea eta diskriminaziorik gabekoa.
6. Doakoa benetan eta pedagogia berritzailean ariko dena.

Gaur egun lau ekimenetan ari da lanean: orriotan jorratu dugun Ikasle Euskaldun Eleanitzak, Udaleku Irekiak, Euskaraz mintza eta Aixe Aisialdia. Azken biotan ondokoa lantzen dute.

● **Euskaraz mintza:** Euskal jolasak lantzen dituzte, ikasleak euskaraz jostatzeko. Sortzeneko kide diren eskolei jarraibideak ematen dizkiete, nork bere ikastetxean gara dezan.

● **Aixe Aisialdia:** Eskolaz kanpoko ekintzak euskaraz egiteko begiraleak bilatu eta eskolekin harremanetan jartzen dituzte.

Historikoki Nafarroan txertatze handia izan du Sortzenek, baina “ahulago” egon da EAEn. Bitorikak testuinguruari atxiki dio: “Nafarroan, beti ikusi da aldatzeko beharra eskoletan arazoak daudelako, eskolari egurra ematen diotelako. EAEn, ordea, jendeak ez du ikusten gabezia, baina D ereduak ez du euskalduntzen”.

Ikastetxe gehiagotara zabaltzen ahalegintzen ari da orain elkartea. Haatik, egunerokotasunak borroka fronteak irekitzen dizkie etengabe: “LOMCEren kontrako plataforman gabilitza; zonalde ‘ez-euskaldunetan’ D ereduko eskolak aldarrikatzen; Guardia Zibilak Nafarroako D ereduko irakasleei buruz egindako txostenarena gertatu da...”.

erreparatuz osatu beharko du, Ziarustaren hitzetan.

Ekimen zehatzak martxan

Euskara indartzeko ekimen zehatzak oraindik forma hartzen ari dira, bost urteko plana baita hau, eta bigarrena baino ez da aurtengo. Aitzitik, nabarmendu dute zenbait dinamika zehatz egituratuta daudela jada. Adibidez, Dimako eskolan umeen aisialdian euskararen presentzia handitu dute; besteak beste, eskolaz kanpoko orduean, hala nola, musikan eta kirolean. Bestalde, Herri Eskolako atsedendietan jolasak antolatu dituzte, euskaraz dinamizatuta.

Irakasleei dagokionez, bi ikastetxeetan ari dira metodologia eta didaktika teknikak hobetzen. Etxeberrriak dio Aitor Ikastolan, hizkuntzei dagokionez, irakaspen teknikak “ekonomizatzen” ari direla, eta adibide baten bitartez eman dio forma esandakoari: “Euskaraz adjektiboak

lantzen ari bazara, ez duzu zertan eman adjektiboaren edukia gainontzeko hizkuntzetan, jada jakintzat ematen da”.

“Lehen pausoa euskararekiko lotura afektiboak eta bizipenak ugaritzea da”

**Zefe Ziarrusta,
Dimako Herri Eskolako
ikasketa burua**

Eta gainontzeko hizkuntzekin zer?

Euskararen zimenduak egonkortu nahi dituzten arren, gaztelaniaz eta ingelesez trebatutako ikasleak nahi dituzte. Orain arte “gaizki” egin da hizkuntzen tratuara eskolan, Ziarustaren aburuz. Ironiaz azaldu du: “Pentsa, gure garaian, ingelesa eta frantsesa ikasi ditugu, baina ba al gara komunikatzeko gai?”. Ezezko

borobilaz erantzun dio bere buruari botatako galderari. Horregatik, orain, batez ere umeen komunikazio gaitasunean paratuko du arreta ikastetxeak. Alegia, garrantzitsuena haurrak hizkuntzak ulertu eta hitz egiteko gai izatea da.

Horretarako, Diman, eskolak haurrei proiektuak ingelesez edo gaztelaniaz garatzeko erremintak eskainiko dizkie. Egia auzoan ahalik eta era “praktiko eta dinamikoenean” hurbilduko diete hizkuntza.

Euskara egoera “kaskarrean” dagoela diote biek, eta horregatik hartu dute egitasmoaren oinarritzat. Dena den, gainontzeko hizkuntzen lanketan sakontzeak duen garrantziaz jabetuta daude. Esaldi baten bidez laburbildu du Etxeberrriak: “Euskararen egoera diglosiakoari buelta eman behar diogu. Hortik abiatuta, geroz eta hizkuntza gehiago jakin, hobe”. ■



Bretainiako 'Korrika' maiatzaren 24an hasiko da

AR REDADEG du izena Bretainian antolatzen duten Korrikaren antzeko lasterketak. AEK-k prestatzen duena erreferentzia moduan hartuz 2008an hasi ziren egiten. Korrika bezala, bi urtez behin egiten dute eta aurtengoa laugarren edizioa da. Maiatzaren 24tik 31ra arituko dira korrika.

Morlaix herrian hasi eta Glomel-en bukatuko dute. 1.500 kilometroko bidea egingo dute.

Ipar Euskal Herriko AEK-k autobusak antolatu ditu bukaerako festara joateko. Nahi duenak hilaren



WWW.CONSOREIZH.COM

29an joan eta ekainaren 1ean itzulteko aukera izango du.

Euskaldunak hara joaten diren bezala, iaz bretoiak Baionara etorri ziren Korrika 18ren bukaera-festa ezagutzera eta gozatzera.

Bahea

Iñaki Seguiolak 31 eskutik blogean esanak:

"Nik esango nuke euskararen bazterketa bortxazkoa nabarmen arindu denean (euskarazko eremuaren erdi-mendebaldean bereziki), 'euskararen gezurra' ari dela agerian gelditzen. Gauzak nolabait adierazi behar, eta 'Lekeitio erako' eta 'Agurain erak' herriak bereiziko ditut. Aurreneko horietan iruditzen zait izanak hartu diola gaina eginari; bagara, ez dago dudarik bagarela, eta orduan zertarako 'nekatu' egiten, errazena pantalletatik sartzen zaidan hizkuntza horren magalean etzatea dela sentitzen baldin badut? Eta hor gertatzen ari dena da behera datorrela euskara, gehienbat helduen artean, hots, pantallei begiratzuz beren bizi-zaputuz edo eroriera esistentzialari ez-ikusiarrena egin nahi liokeen jende-moduaren artean. Bigarren erako herrietan askok ez daukate garbi zer diren, ez dago garbi badiren edo ez diren, hizkuntzaren galera aspaldikoa baita, eta orduan, izanean sendotzeko, zer dago hoberik euskaraz ikasi eta egitea baino? Eta hor gora egiten ari da euskara; inongoa ez den eta ia edonorena izan daitekeen euskara hori, bai, baina euskara, azken buruan. Bi era horietako herrietan gertatzen ari denaren muina edo emaitza honako hau da: ez dakitenak ari dira ikasten euskara, dakitenek lasai utz dezaten bazterrera".

EKONOMIAREN TALAIAN

AHT, xahuketaren monumentu

EUSKAL HERRIKO AHTREN obrak beste behin zurrunbiloaren erdian daude. Beti krisian dagoen proiektu bat da hau, bai Euskal Herrian baita Espainiako eta Frantziako Estatuetan ere. Pasatzen den egun bakoitzeko erokeria milioi duna iruditzen zaigu, usteldua dagoena, susmoak baitaude gain-kostu handiak izan direla. Azken egunetan Bartzelona eta Madril arteko AHTren obretan diru publikoa bidegabe erabili dela jakin dugu, sei milioi euro ere izan litezke. Ustelkeria kasu honetan ikertzen ari diren enpresetako bat Corsan-Corvian da, "Euskal Y"-aren lau zatitako obretan ere parte hartzen du enpresa honek. Gasteizko gobernuak, hala ere, eskuak garbitu ditu eta esan du hemen "prozedurak bete" direla. Jakina. Han bete ziren bezala. Baina orain ustelkeria milioi duna hori azaldu da.

Jadanik 2.200 milioi euro xahutu dira euskal lurraldean. Oraindik beste 4.000 milioi euro ordaindu behar dira. Madrilekin konexioa ez

dago bermatua. Frantziako Gobernuak 2032 arte atzeratu ditu euskal AHTrekin lotzeko obrak. Ustelkeria kasuak hasi dira azaleratzen. Izebergaren muturra ote? Sortu diren lanpostuak oso prekarioak izan dira eta hainbat langile hil dira. Herritarrei ez diete galdetu, inondik inora, proiektu honi buruz. Azken batean, inora ez daraman bideitsu batean gaude. Arduradun politikoek egin dezaketen onena da obrak geratzea; zuzendari eta enpresen artean ustelkeriarik izan ote den ikertu, eta hala balitz, zigortzea; eta 4.000 milioi horiek erabilteza euskal herritarren eskubide sozial eta laboralak errespetatzeko, langabeziak eta murrizketek pobrezia ekarri duten honetan. Eta hala, Lemoizen antzera, AHT monumentu itsusi bat izango litzateke xahuketaren eta gehiegikeria politikoaren omenez.

Juan Mari
Arregi



MARCOS
okindegia

**Benetako
aitzinako ogia**

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

Ernesto Laclau, ezkerreko lider populisten teorikoa

Apirilean hil da Ernesto Laclau politologo argentinarra. Néstor Kirchner eta honen alargun Cristina Fernández presidenteen aholkulari teorikoa izatetik askoz harago heldu da post-marxismoaren adierazgarri handitzat jo den Laclaren eragina. Latinoamerikako “ezker errealak” populista izan beharra daukala aldarrikatu du.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

LATINOAMERIKAN DEMOKRAZIA erreala oinarritzen da mugarik gabeko hautagaitzan. Azkenean lortu delarik aldaketa prozesu oso bat antolatzea izen baten inguruan, izen hori desagertzen bada sistema hauskor bilakatzen da”. Horrela mintzo zen Ernesto Laclau (Buenos Aires 1935, Sevilla 2014) politologo eta irakasle argentinarra, apirilean zendu berria dena. Egunkari askok aipatu duten “kirchnerismoaren teorikoa” baino askoz garrantzitsuagoa izana da.

1960ko hamarkadan ezkerreko aldizkarien bultzatzaile aritu zen, harik eta 1969an Londresera hegan egin zuen arte, beka baten laguntzaz, Eric Hobsbawm historiagile marxista ezagunaren gidaritzapean ikasketetan sakontzeko. Geroztik lan akademiko nagusia Britainia Handian egin du, Essexeko unibertsitatean. Chantal Mouffe soziologo belgikarrarekin ezkondu bizi izan da.

Diote adituek Laclau Moufferekin idatzi zuela bere obra gorena: *Hegemonía y Estrategia Socialista* (1985), obra nagusietakoa post-marxismoa deitu den ildoan. Literatura eta teoria marxistaren zaleari ezaguna egingo zaion “hegemonia politikoaren” sorrera eta garabidea aztertu zituzten senar-emazteek Rosa Luxembourgen, Karl Kautsky,

Georgi Plejánov, Eduard Bernstein, Georges Sorel, León Trotsky, Vladimir Lenin eta batik bat Antonio Gramscik idatziak arakatzetik hasita, Louis Althusser, Jacques Lacanen psikoanalisi eta abarrekin aberasturik. 1992an argitaratu zuten *Deconstrucción, Pragmatismo y Hegemonía*.

Baina Laclau ez zen akademiko ezkertiarren bibliografiatik askoz urrutiago iritsiko ez balitz busti Hego Amerikako eta Argentinako politikagintzan. Funtsean, Néstor Kirchnerren inguruan antolatu eta honen alargun Cristina Fernándezekin jarraipena izan duen *kirchnerismo* deitu korrante politikoaren oinarri teorikoa sustatuz.

Kirchnerismoak, laburbilduz, aldarrikatu du giza eskubideen defentsa, diktadura militarren arduradunen auziperatzearekin, neoliberalismoa eta merkataritza libreko nazioarteko itunak arbuia-tuz nazioartean Mercosur babesten du, Venezuela, Ekuador, Kuba, Bolivia eta Brasilekiko elkarlana; abortu eskubidea ere defenditu du.

Laclauk 2005ean *La Razón Populista* liburuan mamitu zuen Latinoamerikan ezkerreko politikak zergatik joan behar duen lider indartsu eta mugarik gabe aginteari lotuen inguruan artikulatuak. Joko arriskutsuan sartu zen Laclau post-marxis-

Argazkia 2006ko maiatzekoa da: Néstor Kirchner, Evo Morales, Lula Da Silva eta Hugo Chávez Argentinako Puerto Iguazun elkartuta, argentinarren eta ekuadortarren artean gasaren esportazioaren inguruko ezadostasuna konpontzeko. Ernesto Laclauk (argazki txikian) Kirchnerrekin izan arren harreman estuena, beste hiruren itzala ere ageri da hark landu populismoaren eta lidergoaren ideietan. Aipatzen zuen zein nekettsua izaten ari den Brasilgo trantsizioa Lulak agintea utzi ostean. Gauza bera agerikoa da Venezuelaren Chávez hil ondoren. Argentinan Kirchnerrek hartu zuen senar zenaren lekukoa eta Laclau konplexurik gabe aldarrikatu zuen konstituzioa aldatzea Cristina Fernández baimentzeko agintean jarraitzea. Lider horien mende sistema burokratizatze arriskurik? Laclau: “Latinoamerikan demokraziak arriskurik baldin badauka, neoliberalismotik datorkio, ez populismotik”.

ta, politikagintzan irudi itsusi guztiak piztarazten dituen *populismoa* aldarrikatuz.

Rebelión gunean haren oroime-nezko hil oharretako bat idatzi duen Federico Vázquezek honela komentatu du Laclaren populismoa: “Egileak populismo kontzeptuari Argentinako eta Latinoamerikako testuinguruan —hau da, gobernu aurrerazaleekin lotuz— emandako erabilerarekin, kontzeptuaren arteko hutsune bat bete zuen. Alegia, nola izendatu gertatzen ari dena, nola teorizatu ‘ororen ostean’ baletoz bezala jaiotako gobernu eta prozesu politikoak: post-ideologiko, post-krisi, post-moderno...”.

Kirchner, Lula, Chávez...

Laclauk, hala ere, bazekien hedabideetatik hitz lauagoz mintzatzen. 2009an Boris Muñoz kazetari Venezuelarrak elkarrizketatu zuen Caracasera egindako bisitaldi batean *Provinci* gunerako: “Ernesto Laclau: *Todo populismo es un momento de ruptura*”. Chávezekiko kritikoa ageri den kazetariari emandako erantzunetan laburbiltzen dira teorikoaren ideia nagusietako asko.

Hasteko, sozialismoa eta merkantua: ekonomia mistoa izango da, baina neoliberalak ezarri dutena baino askoz arautuagoa. Erregulazio honek lortu beharko du lotzea



nean jendea eroso bizi da aparatu inbertsonal baten barruan. “Baina jendea bizi denean sustraiak agerian dituela [prekarietatean], bere nortasunaren zentzua berreraikitze behar du egunerokotasunetik kanpoko identifikatzaile bat. Eta hor liderraren figura derrigorrezkoa da. (...) Ez dut historian kasu bakar bat aurkitu non nazio nortasun bat berreraiki den lider baten pertsonalitatea eta irudia gabe”.

Baina liderrak berak eraman dezake prozesua hondamendira, argudiatu diezaioke Laclauri irakurleak *Prodavinciko* kazetariarekin batera. Erantzuna: “Liderra bera oztopo bihurtzea posibilitatea da, ez da fatalitatea”. Alegia, liderra bilakatu daitekeela politika ezkertiarak egiten hasita diktadore higuin-garri izaten, Robert Mugabe baten gisan, baina baita bere ildoan iraun Julius Nyerere keniarrak bezala. Edo Fidel Castrok bezala.

Bide batez esanda, Laclauk uste du Kubak aprobetxatu behar duela Venezuelako aldatetek eman dioten aukera Latinoamerika osoaren prozesuan integratzeko, ez dadin hipotesi okerragoa gertatu: “Miamiako mafia kubatarrak hartzea Kuban agintea, uhartea kasinoz eta putez bezalaxe berrituz”.

Latinoamerikan, Laclauriaren, protesta eta eskari isolatuetatik prozesu berri bat gorpuztera jauzi egiteko, jendearen sentimenduekin kontatu behar da, eta hor paper berezia dauka lider karismatikoak. Herria osatu nahi duen taldearen batasun ikurra izango den aitzindariak. ■



“merkatuaren indar basatiak”. Horretarako estatu bakarrek estrategiek ez dute balio, bakarka ahulegiak dira estatuak, eskualde mailako guneak behar dira, Mercosur bezalakoak, Nazioarteko Diru Funtsekin eta Munduko Bankuarekin lehendik dauden itunak aldatzeko.

Krisi orokorraren aurkako mugimendu horizontalak ez dira aski, “*Que se vayan todos*” bezalako esloganek ez dute balio, beti geldituko baita agintean norbait, eta zalapartaren erdian gutxien maite dena nagusi geratzeko arriskua dago.

Laclauk Latinoamerikako historian kokatzen du ezker populistaren aldarrikapena. Frantziako Iraultzan hasita demokraziaren inguruan herrialde askok beren bidea egin


badute, Amerikakoek ez dute berena aurkitu. Horregatik interesatzen zaio populismoaren eta instituzioen arteko oreka. “Populismo puruak burokratismoan bukatzeko aukera guztiak ditu. Aldiz, instituzionalismoak parte-hartze politikorik gabe sistema esklerosira eraman dezake. Latinoamerikako sistema politiko asko ez ditu populismoak suntsitu, askoz prozesu beldurgarriagoek baizik, izan diktadura militarrek, edo neoliberalismoak. Horregatik, sistema politikoak berreraikitzeak hemen osagai populista sendoa beharko du, antzinako instituzionalismoa krisian dagoelako”.

Erreformek aurrera egin dezaten, ordea, lider bat behar da. Gizarte bat instituzionalizatuta dagoe-



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Xabier Letona



DANI BLANCO

Eta hala ere... hobe egotea

EUROPAR BATASUNEKO datotzen hauteskundeetan, krisiari EBk emandako erantzuna herritarrek nola baloratzen duten ikusteko aukera izango da. Lehen aurreikuspenak ez dira onak: 2009ko hauteskundeetan –krisiaren ondorioak oraindik ez ziren agerian EBn– %43ko parte-hartzea izan zen, 1979ko lehen bozketatik txikiena. Paradoxa bitxia da, Europako Parlamentuak zenbat eta eskumen handiagoa izan eta zenbat eta parlamentu gehiago izan, orduan eta herritarren parte-hartze txikiagoa hauteskundeetan. Eta horrek badu zerikusirik bere garapenarekin eta bere testuinguru historikorekin.

Europar Batasunaren ernamui-na estatuak gerratik babesteko hesi gisa eratu zen II. Mundu Gerraren ondoren, eta zer hobe horretarako ekonomi merkatu handi bat sortzea baino. Ekonomia trukerako espazio zabal bat, ekonomia hazkunde ikaragarria ezagutzen ari zen garairako. Bere itunetan espiritu soziala oraindik ahula zenean, orduan eta sozialago zen Europako merkatu batu hura, besteak beste, gerraren ondorengo lehen hiru hamarkadak Europan inoiz izan den eredu sozialena eraiki zelako. Lehen bederatzi estatu haien lehen hauteskundeetan (1979), herritarren %70ak eman zuen bozka. Harrezkero, urtez urte joan da jaisten parte-hartzea ondorengo sei hauteskundeetan, eta agintariak beldur dira hau barregarri geratzeko modukoa ez ote den izango: jaitsi daiteke %40tik behera? Non geratzen da zilegitasuna orduan?

Gaur egun, alabaina, hitz egin dezakegu horren argi Europar Batasun bakarraz? Maastrichteko Itunaren fruitu zen moneta baka-

rraren EBk kohesioaren irudikeria zabaldu zuen, baina 2008ko krisiak laster azaleratu zuen Euroaren batasunaren gezurra. Alemaniak gidatutako taldea –Austria, Danimarka, Finlandia...– eta gainerako herrialde ia guztien arteko desberdintasun ekonomikoa handituz joan da. Grezia, Irlanda, Portugal, Espainia eta Italian ikusi da hori ondoren. Kohesiorako behar eta babes handiena behar zenean, Batasuneko estatu indartsuenek eta instituzio nagusiek are eta gehiago handitu dute arrakala. EBren erreskate planek eta austeritate politikek amildegiaren ertzean jarri dituzte estatu gehienak eta milioika herritar. Egia esan, milioika herritar amildegira erortzen ari dira, noiz eta agintari askoren esanetan, krisitik ateratzen ari garen honetan.


Bigarren Mundu Gerraren aurreko hainbat itzal agertu dira Europan azken bosturtekoan: 26 milioi langabetu, finantza merkatuak dantzan eta 1929ko krisiaren oihartzunak saihestu ezinik, behe eta goikoen arteko gero eta desberdintasun bortitzagoak, eskuin muturra gero eta sendago... Ezkerraren egoera da desberdintasun handienetakoa: Sobiet Batasuneko haizeen bultzadarekin, sasoi hartan ezkerreko mugimenduek gogor egiten zuten bultzatza harreman sozialak orekatze aldera. Printza esperantzagarriak badiren arren, gaur egungo ezkerraren ezintasuna agerikoa da, eta hortaz, aberatsenen aldeko harreman sozialen desoreka ere gero eta agerikoagoa. Badirudi ekuazioa argia dela: Europako espiritua zenbat eta sozialago, Europar Batasuneko herritarrek ere identifikazio handiagoa Batasunarekin.

ESTATUEN eta merkatuen Europa honek, beraz, aurrera egin ahala, ba al du eskaintza erakargarrikerik herri eta herritarrentzat? Eraikuntza molde honetan gero eta gutxiago seguruenik, eta ezin baikortasun handiz begiratu etorkizun hurbilari. Austeritate politikak apur bat laxatu daitezkeenean, begien aurrean dugu TAFTA akordioa, AEBek eta EBk, Atlantikoaren gaineko Merkatu Librearen Gunea izendatutako ituna. Lehiakortasuna are eta bortitzagoa izango da –lan merkatu eta lan sarietan ere bai–; produkzioarako kontrola are txikiagoa, horrek izan dezakeen ondorioekin; hazkundera eta lehia ingurumenaren gainetik izango dira; Itunaren garapenaren kontrola gobernuen eskuetatik kanpo geratzen da; eta, oro har, garapen eredu angloxaxoia indartsuago izango da, finantzen munduaren gero eta botere maila handiagoarekin.

Eta, hala ere, estatuaren menpe diren herri txikiei interesatzen zaie EBren espazioan egotea. Batez ere ikuspegi demokratiko ahulena duten estatuetan daudenei. Ulergarria da Europa horrekiko interes eza, baina txikiok atera dezakegu etekinik egoera horretatik. Bat, estatuak dituzten burujabetza galera horietan akaso topa daitezkeelako herrien izaera indartzeko zirrikituak; bi, Europako Legebiltzarra bozgoragailu bikaina bilaka daitekeelako; eta hiru, Herrien eta herritarren elkartasunerako Europaren aldekoek harremantzeko duten espazio iraunkor esanguratsuen delako gaur egun, bestelako Europa bat eraikitzeko behar diren konplizitateak eraikitzeko ezinbesteko espazioa. ■



ASTE HONETAKO zozketa



Argiako harpidedunentzat



**A fuego negro
jatetxea**

2 lagunentzako afaria

Abuztuaren 31, 31
Donostia GIPUZKOA

www.afuegonegro.com

1



**San Telmo
Museoa**

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

2



**EUREKA!
zientzia museoa**

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

3



Korrontzi

Tradition 2.1

5 CD opari

www.baga-biga.com

4



**Argia
kamiseta**

kamiseta

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2412. Argia)

ANDRA MARI jatetxea

- Koldo Elorz Leoz (Iruñea)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Malentxu Arrospide Arrate (Lizartza)
- Maria Jesus Zubikarai Erkiaga (Bermeo)
- Imanol Alvarez Gartzia (Bilbo)
- Jose Luis Zubiaurre Ulazia (Mendaro)

OKATXU komikia

- Iban Garate Garmendia (Gasteiz)
- Getxoko Euskara Zerbitzua (Getxo)

IRUÑEAKO PLANETARIO

- Igor Jimenez Honrado (Elorrio)
- Iñaki Zubeldia Otegi (Ikaztegieta)
- Asier Lizarriturri Martiarena (Aretxabaleta)

"HIRU" antzezlan

- Esteban Etxeberria Urreaga (Hernani)
- Santurtziko Udal Euskaltegia (Santurtzi)
- David Cascan Porben (Barakaldo)
- Manuel Arregi Urrutia (Zestoa)
- Gotzon Apaolaza Bernedo (Lasarte-Oria)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia



Garai interesgarriak. Begirada independentea.



argia

Harpidetza
etxean jaso nahi dut

ARGIaren urte osoko harpidetza
(46 zenbaki, 11 Larrun, Urtekaria)

Hego Euskal Herrian 12 € hilean
Iparralde Euskal Herrian 15 € hilean

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (24 digitu)

☐ Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

Postaz bidali edo 943 37 15 45 • harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

TOLESTU

ZELOAPERA
HERNAN VILA

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)